uztarria
AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Uztarriak eta Baitek bat egitea erabaki dute (26-34)



Hilabetekaria • 2003ko abendua • V. urtea • 46. zenbakia • www.uztarria.com



# NATURAREN ARGAZKILARI

Juan Joxe Agirrek ehun saritik gora irabazi ditu argazkiekin (3-5)

# URRATEGI Sukaldeak

Sukaldeko irla, sukalde handietarako erantzuna






**zure neurriko prezioak**

Detailedun bainugelak




Neurrira egindako armairuak







**larunbat arratsaldetan zabalik**

Ibai ondo 10 - 20720 Azkoitia Tel. 943 85 72 44 - Faxa. 943 85 13 14
sukaldeak@urrategi.net

Elkarrizketa. Imanol Eliasi, efemeride liburuaz (18-19)

Andoni Aranaga, txirrindulari profesionala (21)



Maider Egiguren, herriko zazpigarren presoa (22)



Klik! Santo Tomasetako lehiaketa (44-46)

uztarria



# Juan Joxe Agirre argazkilaria

Ingurumena eta, batez ere, zuhaitzak dira Juan Joxe Agirreren argazkirako gairik gustukoenak. 'Gure inguruari begirada bat' lehiaketan bi sari nagusiak jaso ditu. Argazkian ehun sari baditu

# "Mendira beti eramaten dut argazki makina"



NEREA URANGA

Nerea Uranga

Argazkigintzari lotuta 30 urte daramatza Juan Joxe Agirrek. Orain, *Gure inguruari begirada bat* lehiaketan bi sari nagusiak berak jaso ditu. Izan ere, natura du gai kuttuna, eta pagoak; hala, Aittolan atera zizkion Uztarriak argazkiak, *bere* pagoen ondoan.

**● Nola hasi zinen argazkigintzan?**

Argazki munduan, ezkondu eta berehala sartu nintzen. Umeak-eta etorri zirenean ▸▸

umeei argazkiak ateraz-eta hasi nintzen. Orduan txuri-beltzean eta negatiboan ateratzen nituen. Koinatuak diapositibak egiten zituen eta neu ere horretan hasi nintzen. Beranduago argazkigintzaren inguruan jendea mugitzen hasi zen Azpeitian eta aurreneko argazki rallyak antolatzen hasi ziren. Haietan parte hartzen hasi nintzen, ez zitzaidan gaizki joan eta gaur arte.

**• Gogoan al duzu zuk ateratako lehen argazkia zein izan zen?**
Emaztea Zumarragakoa dut. Kamera erosi berria nuen eta behin Zumarragatik Azpeitira Pagotxetatik zehar oinez etorri ginen, eta orduan ateratako irudi batzuk buruan dauzkat; orain, ordea, leku haietara joan eta ez dut leku bera topatzen.

**• Eta ateratako azken argazkia?**
Samiñon, Uztarria eta Lagun Onak Mendi Bazkuna prestatzen ari diren mendi gidarako argazki batzuk, baina horrek ez du esan nahi niretzako beste batzuk egin ez nituenik. Bestela, Larraskandara joan nintzen argazki batzuk ateratzekotan, baina azkenean argazkirik ez nuen atera.

**• Argazki makina leku guztietara eramaten al duzu?**
Mendira joaten naizenean, beti. Horrek ez du esan nahi, ordea, beti ateratzen ditudanik. Pena handia da mendira joan, gauza eder bat ikusi eta kamerarik ez izatea.

**• Zenbat lehiaketa edo sari irabazi dituzu dagoeneko?**
Ehundik gora. 30 urte daramatzat argazkiak ateratzen eta urtero hiru edo lau sari irabazi izan ditut.

**• Herritik kanpoko argazki rallyetan eta lehiaketetan parte hartzen al duzu?**
Bai, asko ibiltzen gara beste herriko rallyetan eta lehiaketetan. Donostiako rallya oso ospetsua da eta lau aurreneko postuak aterata nago. *Diario Vasco Verano* saria ere atera nuen urte batean. Gero, *Natura* eta horrelako aldizkarietan ere argitaratu izan dizkidate argazkiak.

**• Zein gai dituzu gustukoenak?**
Gustukoenak ingurumenari buruzkoak ditut, hori landu dudalako batik bat.

**• *Gure Inguruari begirada bat* lehiaketan bi urtetan izan zara saridun. Aurten ere bi sari nagusiak zuk jaso dituzu.**
Ni ez naiz besteak baino argazkilari hobea baina lekua eta ingurua ondo ezagutzen ditut. Eta beti inguruari begira nago eta leku politak bakarrik ez, gaizki dagoenari ateratakoak ere gorde egiten ditut.

**• Orduan, inguruko txoko ederrenak ezagutuko dituzu baina baita zatarrenak ere.**
Ni alde ederrenen bila joaten naiz beti baina zatarrenak ere bilatzen ditut.

**• Gauza negatiboen eta gauza zatarren argazki on eta polit bat ateratzea zaila izango da gero.**
Gauza txar baten argazki ona ateratzea... betiko buruhaustea da hori eta askotan epaileek kontuan hartzen ez dutena. Askotan gehiago baloratzen da estetika edukia baino. Epaileentzat lan zaila izaten da.

**• Zu ere argazki lehiaketetan epaile lanetan ibilia zara.**
Hala tokatzen delako da. Lan hori egitea inork ez du nahi izaten. Eskerrak, batek ba-karrik emango dizkizu, beste inork ez.

**• Bildumen erakusketak ere egin izan dituzu. Zuhaitzei buruzko argazki bildumaren erakusketan esan zenuen zuhaitzena izan dela grinarik eta poztasunik handiena sortu dizun gaia.**
Arbola zaharrak mirestu egiten ditudalako diot hori. Niretzako baso batean paseoan bakarrik ibiltzea gauza ederrenetakoa da. Aldi berean, oso txikia eta oso babestua sentitzen naiz. Argazki makina eraman eta argazkiak ateratzen ibiliz edota perretxikotara joanda gustura ibiltzen naiz basoan. Zuhaitzekin dagoen arazoa, gero eta baso autoktono gutxiago daudela da, eta horrek ere pena ematen dit. Udalak, Foru Aldundiak eta horrelako erakundeek nahiz eta lana egin, gehiago egin beharko luketela iruditzen zait, batik bat beren lurretan.

**• Baina zuhaitza ez al da gauza estatiko bat?**
Oso gauza estatikoa da eta bere lurrarekin oso fidela eta traizionatzen ez duena. Eta urtaro guztietan edertasun berezia du.

**• Zuhaitzen bilduma Azpeititik kanpo beste inon erakutsi al duzu?**
Azkoitian eta Tafallan egin dut erakusketa. Datorren udaberrian Donostian jarri behar dut. Oraindik osatzen ari naizen bilduma bat da, beti berritzen ari naizena. Azpeitiko baserriena da osatuta dudan beste bilduma; baserri asko desagertzen ari zirela ikusten nuen eta jasoko zituen dokumentu bat egin nahi nuen. Bilduma liburuan jasota dago.

**• Zein ingurutan egiten dituzu argazkiak?**
Hemen, Elosu eta Aittola aldean gehienak. Eta asko baita Urbasa, Andia, Artikutza, Irati eta Aralar inguruan ere. Lekurik gustukoenetako bat Artikutza dut. Hemen inguruko ia baso denak ustiaketarako basoak dira eta Artikutzakoak, aldiz, ehun urtetik hona bere erara utzitakoak dira; oso arbola ederrak daude, eroritakoak eta usteltzen ari direnak goroldio, perretxiko eta abarrekin, eta zuhaitz berriak nola sortzen diren ere ikusten da, naturaren prozesu osoa ikusten da eta eskola paregabea da.

**• Inoiz pentsatu al duzu tailerra utzi eta argazkigintzatik bizitzea?**
Oso zaila da argazkigintzatik neure gustuko argazkiak eginez bizitzea. Beste kontu bat da denda jarri eta handik bizitzea, baina lan hori ez dut gustukoa. Beste ogibide bat badaukat eta nahiago dut nire denbora librean nire kontura ibiltzea argazkiak ateratzen. Horrek ez du esan nahi argazkirik-eta ez dudanik saltzen; enkarguzko lanak ere eskatu izan dizkidate. Eta elkarlanean egindako lanak, orain mendi gida bezalakoak, askotan egin izan ditut.

**• Antxieta Arkeologi taldean ere ibili zara.**
Urte batzuk egin nituen. Urte haietako oso oroimen ona daukat. Historia-aurreari buruz gauza asko ikasi eta kobazulo, erreka eta toki politak ezagutu nituen. Eta Andoni Albizuri ezagutzeko aukera izan nuen; beharbada hark erakutsi zidan natura beste begi batzuekin ikusten. Orain haiekin ere hartu-eman ona dut, behar denean elkarrekin lan batzuk egiten ditugu, bai Antxieta eta bai Azkoitiko Munibe taldearekin ere.

**• *Azpeitiko Baserriak argazkitan* liburuan lehenengo orrialdean natur zaletasuna gurasoei, Odriozolatxo eta Premietxeberri baserrikoei zor diezula esan zenuen.**
Mutil kozkorretan, lanean hasi arte, anaia eta biok Odriozolatxo baserrian egoten ginen, eta hango oso oroimen onak dauzkat; agian, nik herrena neukalako eta gustuko lanak baino ez nituelako egiten edo. Baina, batik bat, oso ondo tratatzen gintuztelako. Ez zait ahaztuko udako gau beroetan nola joaten ginen atarian zegoen ariztira, basoan etzan eta gora begira egoten ginen muxarren zarata entzuten edo ikusi nahian. Baita izarrak ikusten ere. Orain ez dakit halakorik dagoen. Eta beharbada hortik datorkit naturarekiko zaletasuna.

# Karretea falta

**Juan Joxe Agirrek pena handi bat badu eta horren arrazoia Madrileko laborategi batera errebelatzera bidalitako karrete baten galerak dauka. "Antxieta taldean nenbilela Ekaingo kobazulora argazki makinarekin sartzeko baimena lortu nuen. Ekainerako sarrera oso mugatua dago eta argazki makinarekin sartzea ia ezinezkoa da. Baina baimena lortu eta argazki roilo oso bat bota nuen, kontu handiz. Ekaingo argazkiak zituen karrete hori Madrilera bidali nuen errebelatzera... eta gaur arte. Inoiz ez zait errebelatzera bidali eta karrete bakar batere galdu, eta kasualitate galanta karrete huraxe galtzea!". Oraindik ere pena handiz kontatzen du Juan Joxek karretea galtzearen kontua. Ekaingo argazkirik ez, ezin, baina mila argazkitik gora ditu etxean artxibatuta.**









## di-da batien

- **Ordu bat?** Iluntzeko argazkia.
- **Urtaro bat?** Denak ditut gustuko. Bat esatekotan, udazkena; koloreagatik, hain zuzen. Negua, elurra eta lantzurdeagatik. Udaberria, kolorea eta naturaren zoramenagatik. Eta uda, denbora asko dagoelako libre.
- **Txuri-beltza ala kolorea?** Kolorea.
- **Kolore bat?** Berdea.
- **Leku bat?** Artikutza.
- **Zuhaitz bat?** Pagoa, dudarik gabe.
- **Argazki bat zeini?** Pagoari udazkenean.
- **Eta zeini ez?** Politikoei ez.
- **Analogikoa edo digitala?** Biak. •

**amuko zubitik** Mikel Arregi



# AITZAKIAPEAN BIZITZEA

Ez da giro Euskal Herrian. Ez da giro Azpeitian ere. Gatazkaren eraginak gero eta jende gehiagorengana ari dira iristen. Euskal Herriaren alde lanean jardutea nahikoa aitzakia dute: 5 eguneko inkomunikazioa eta kartzela. Oraingo honetan Maider-i tokatu zaio, euskalgintzari emandako kolpeen ondoren etorritako lehenengotako erasoan.

Eta euskalgintza aipatzen dut, eraso horien ondoren bazirudielako guztiok konturatzen hasiak ginela eraso hauen zentzugabekeriaz (edo zentzuaz). Eta gaitzerdi esan genezakeen, konturatu izana ez zelako gutxi.

Edo bazen ordua ere esan genezakeen. Bazelako ordua Euskal Herria hil nahi digutenaz guztiok jabetzeko. Izan ere, euskalgintzaz gain, beste arlo askotan lanean dabilen jendearen aurka ere jo izan dute. Herri mugimenduetan, AEKn, Gazte Mugimenduan, Presoen Eskubideen alde, ezkertiar ikuspegitik Euskal Herriaren eraikuntzan dabilen jende mordoxka atxilotua izan da. Oraingo honetan Maiderekin gertatu den bezala.

Eta guztia justifikatzeko, beti aitzakia bera: ETA. Bai, badakigulako askotan aitzakia hutsa dela, herri honen alde lanean dabilen edonor geldiarazteko aitzakia bat. Baina operazio polizial hauek inolako oinarririk ez dutela uste arren, ETArekin ados ez egoteagatik aitzakia horren pean ezkutatu direnak ere baditugu.

Eta bazirudien aitzakia agortua zela, Martxelo Otamendi eta abarri tokatu zitzaienean, aski jakina baitzen ETAko kide ezin zitezkeela izan. Orduan bai, orduan herri guztia kalera. Bejondeigula esan genezakeen orduan! Behingoz herri guztiak salatu zituelako Espainiaren erasoak.

Baina berriro gertatu da. Nahiz eta erasoa bera izan, injustizia berdinean oinarritu, berriro ere ezker abertzalea bakarrik atera da kalera. Gainontzeko guztiak ETAren aitzakiapean ezkutatuta egon dira nonbait.

**azketako ude** Ainhoa Odriozola



# BEHARRAK ESKAPARATEAN

Lehengoan ikusi nituen etxebizitzen alogera eta salmenta prezioen inguruko kartel gorriak kalean. Honen ildotik, irakurleari eskatuko nioke irudika ditzala bi egoera. Imajinatu medikuarengana goazela gripeak jota, emandako erremedioa oso garestia dela eta hau erantzuten digula: "Gripe bolada itzela dago, eta eskaera handia denez, prezioa igo da". Haurra eskolara matrikulatzera goaz eta honokoa esaten digula zuzendariak: "Dagoen jaiotze tasa altua dela-eta, matrikula bikoiztu da. Hala ere, garesti baderitzozu, haur zerrenda handia dugu sartzeko, zure lekuaren zain". Pentsatu une batez: ezinezkoa, irreala, lotsagarria... Espekulazioa deituko nioke: batzuen beharraz aprobetxatuz etekina ateratzeko ahalegina.

Etxebizitza, osasun atentzioa, hezkuntza eta lana, edozeinek ongizate estatuan dituen lau funtsezko eskubideak dira. Eta hori Espainiako Konstituzioan jasota dator. Bizitzeko toki bat izatea, lan duina, hezkuntza egokia eta kalitatezko osasun atentzioa bezain beharrezkoa da. Zergatik ez gara lotsatzen etxebizitzen inguruko espekulazioarekin? Egunero gertatzen da. Ondorioak ezagun dira: sotoak jauregien prezioan, ezin etxerik aurkitu, kreditu amaiezinak, alogera exajeratuak, zalantzazko etorkizuna... Euskal Herria da, etxebizitza baten jabe egiteko esfortzu finantziero handiena eskatzen duen komunitatea, soldataren %60a.

Horrelako arazoen aurrean, gobernuari, legeei, agintariei edo egoerari atxekitzen diogu errua, urruti bezain abstraktu egiten zaizkigun enteei. Badute bere ardura, noski, baina ez dago hain urrutira joan beharrik. Lur jabeak, eraikuntza enpresak eta etxe jabeak tokatu zaizkit beren ondasuna saltzeko prest, ez duen baloreagatik. izan dezakeen prezioagatik baizik. Ez gara konturatzen eskaintzen ari garena behar bat dela bestearentzako.

**hiruko txikiyen** Iban Arregi

**1 ERAMANDAKOAK.** Ikasberrik eta Askagintzak Herria Bizirik eguna egin zuten duela gutxi Azpeitian, drogen gaia delaeta. Ondo. Duela hogei bat urte, heroinak *eraman* zuen belaunaldi oso bat. Gaur *gainditu* dugu heroinarena, belaunaldi gazteok urruti ikusten dugu *zaldiye*. Bizirik gaude. Gaur egun informazioa badaukagu, eduki beharko genuke. Prebentzio neurriak badira, izan beharko lirateke. Neurrian kontsumitzeaz hitz egiten dugu. Beharko genuke...

**2 ERAMANDAKOAK (ETA BI).** Gaur egun polizia ari da belaunaldi osoa eramaten; lehen, pixkanaka-pixkanaka; azken aldian, sarekadaka. 1998an baino bi aldiz euskal preso politiko gehiago daude orain. Eta *mili* baino zibil gehiago atxilotu dituzte azken aldian. Azkena, Azpeitian, Maider. Hurrena?

**3 ETORKINAK.** Eta beste belaunaldi bat, etortzen ari direnena: etorkinena. Azpeitiko ateak (ere) zabal-zabal izan dituzte eta izan behar dituzte. Integrazioa, eta ez bazterketa. Errespetua. Integrazioa eta errespetua, baina gurearekiko errespetutik hasita. Duela 50 urte inguru beste belaunaldi bat etorri zen. Askok euskara ikasi ez badute ere, bertakoa gutxienez errespetatu egin dute; euskararen itzalean hazi dituzte seme-alabak, ikastolara eraman umeak. Bi belaunaldi nahikoa omen dira hizkuntza bat erabat errekuperatzeko..., edo erabat galtzeko. Gaur egun %83k euskaraz egiten du Azpeitian. 100 urtean hizkuntza erabat errekuperatuko al dugu? Ala erabat galduko?




**LAPURRETAK.** Berriz ere lapurreta bolada dago Azpeitian (eta inguruko herrietan). Badirudi, gainera, talde profesional bat ari dela horretan. Etxeetan sartzen dira, komertzioetan... Kontuz ba.

**KOTXEETAN KALTEAK.** Santiago kalean kotxeak aparkatzen dituzten lagunak kexu dira. Izan ere, asteburu gauetan kotxeetan kalteak eginda azaldu zaizkie: markatuta, atzerako ispilua puskatuta...

**EGUTEGIAK.** Zenbat egutegi aterako ote dira datorren urterako, 2004rako? Gero eta gai gehiagorekin lotutako egutegiak ateratzen dira gaur egun Azpeitian. Asko dotore askoak, gainera. Ondo, ondo.

## uztarria.com

**GAIA: Uztarriaren web guneko 'albisteen' atalean Maider Egigurenen atxiloketa eta kartzeleratzea dela-eta iritzi batzuk egon dira. Hona hemen iritzi horietako sorta bat:**

### Militarren jokaera dela eta

Azken boladan, Azpeitian eta Euskal Herriko hainbat herritan, Espainiako indar militarrak erakutsi duten jokabidearen aurrean Azpeitiko Udalak honako hau adierazi nahi du:

1. Aro politiko berria zabalduko duen eztabaida politikoaren kontrako erasotzat hartzen dugu indar militarrek erakutsi duten jarrera probokatzailea. Armen bidezko indar erakusketa lotsagarriak, euskaldunengan beldurra eta izua sortzeko helburua duten jarrera hauek gogor gaitzesten ditugu.

2. Herri bat gara eta geure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugu. Eztabaida politikoa ahal den giro eta zirkustantzi politiko normalenetan egin nahi dugu, horregatik askatasuna murriztea, eta etorkizun beltza iragartzera datozenak sobran daude.

Beraz, espainiar ejertzitoak eta Guardia Zibilak utz gaitzala bakean. Alde hemendik!

Azpeitiko Udala
(EAk aurkeztutako mozioa, eta EAJk eta Habeak ontzat jota)

### Esaldi baliokideak

Gogoratzen al dituzue EGAko galdera luze eta korapilatsu haiek? Ulertzen zaila izan ohi zen esaldi bat jartzen zuten. Zuk baliokidea aukeratu behar izaten zenuen. Atariko froga madarikatuko galderarik madarikatuena izaten zen.

"Azpeitiko Udalaren izenean dei egiten zaio, Audientzi Nazionaleko dagokion organo judizialari, Maider Egigurenen eskubide konstituzionalak errespetatuak izan daitezen, bere espetxeratze prozesuan".

Aukeratu baliokidea:

—Azpeitiko Udalak epaileari eskatzen dio, izan Epi izan Blas, Maiderren eskubide Konstituzionalak ez urratzea, bere espetxeratze prozesuan.

—Azpeitiko Udalak dei egiten dio Auzitegi Nazionaleko organoari, Maiderren giza eskubideak errespetatzea berma dezan, bere espetxeratze prozesuan.

—Azpeitiko Udalak esan nahi dio Auzitegi Nazionalari, ez torturatzeko Maider, nahiz eta kartzelara sartu.

Ni ez naiz oraingoa

### Egindakoa ez kritikatu

Oso ondo zure erantzuna. Onartzen dut askoz gehiago egin dezaketela, baino egiten dutenagatik kritikatzea ere ez zait ondo iruditzen. Gehiago egin dezaketela gogorarazi diozu udalekoei, baina ez egin dutena zapaldu; bestela, hurrengoan igual ez dute egingo.

Hori euskaraz ikasten ari den bati gaizki hitz egiten duelako kritikatzea bezala da. Gehiago ikasten lagundu behar zaio, eta ez gaizki hitz egiten duela-eta kritikatu. Igual euskara ikasteko gogoak aldegingo baizaizkio.

Nahiko nukeena da, udalak berak ere esaten duen bezala Maider errugabea dela legeen arabera ondo azpimarratzea, bestela jai daukagu. Hor dago, nire ustez, zuzentzeko gauza bat, eta, egindakoa gutxi bada ere, hor dago. Askoz gehiago egiteko dagoela ere bai.

Espero dut udalaren intentzioa ona izango zela udalbatza eta mozioa egin dituenean, eta ez zerbait egin eta lasai lo egin. Benetako konpromisoa izango den esperantza daukat. Hori denborak erakutsiko du.

Bigarrenari

**akulue**



Leire Ostolaza

## AZPEITIAN HOGEITASEI

**Hogeitasei omen dira Azpeitian gizarte zerbitzuetara laguntza eske jo duten emakumeak.**

**Hogeitasei begi pare izu, hogeitasei betondo ubeldu, hogeitasei buru makur, hogeitasei belarrondokoren hotsak eztandarazi bitza gure belarriak. Norbere etxean beldurrak bizitzeak eta han jarraitzeak erakusten du tratu txarrek zenbateraino murrizten duen pertsonaren harrotasuna, jipoi baten ondoren borreroaren izarapera sartzeraino. Hogeitasei aldiz baino gehiagotan entzun ditugu istorio beldurgarriak, eta imagina dezakegu herriko etxe horietan haurrek etxera otartekoaren bila joateko zenbaterainoko gogoa izango duten. Izen-abizenak dituzten hogeitasei familia bizi dira mehatxupean, indarkeriaren atzaparretan eroriak beraien etxeetan eta atzean, hogeitasei basati geure artean dabiltzanak. Nor diren ez dakigu eta ziurrenik gehienek ez dute kartzelarik zapalduko, eta ez dute polizi operazio erraldoirik jasan beharko, eta errugabetasun printzipioak babestuko ditu beste asko ez bezala... Legeak eta juizioak egiten dituzten berberak baitira bihotzgabe horietako batzuk, eta emakume batek bere etxean jasandakoak ez baitu kalean eginiko pintada batek adina min ematen itxura garbiko herri aurreratu honetan.**

**galdeiez**

## Abenduaren 6a Espainiako Konstituzioaren eguna. Jai egin beharko al litzateke?



CONSTITUCION

TITULO PRELIMINAR

ARTICULO 1

1 spaña se constituye en un Estado social y democrático de Derecho, que propugna como valores superiores de su ordenamiento jurídico la liber-

### Kontxi Larrañaga
(langilea)

**"Zenbat eta jai gehiago egin hobe da beti.** Konstituzio egunaren ordez beste egunen bat jai egingo bagenu, ondo. Izan ere, Espainiako Konstituzio egunaren omenez egiten dugu jai eta Euskal Herrian Konsituzioa onartu gabe egon da. Beste egunen bat egin beharko genuke jai horren ordez".

### Igor Agirre
(langabetua)

**"Konstituzio egunean lana egin beharko litzateke.** Beste

**zer diyo?**

# EUSKAL PRESOEN AURKAKO ERASOEI STOP

Hala da bai; izenburuak dioen bezala, stop esan behar diogu, Frantziako eta Espainiako estatuek Euskal Herriaren aurka daramaten errepresio uholdeari; bi estatuek, elkar lotuta, polizialki eta judizialki Euskal Herria zapaltzea dute helburu. Euskal Herriaren aldeko borrokan ari den oro erasotua, atxilotua eta abar da. Honen guztiaren islada Euskal Preso Politikoen Kolektiboak izan duen gorakada da; ia 700 euskaldunek osatzen dute. Eta salatu egin behar dira, gure herrian bizi dugun gatazka politikoaren ondorioz, espetxean dauden euskal presoek, eragile politiko izateagatik, etengabe jasaten dituzten erasoak: sakabanaketa, 40 urteko zigor kondenak, bisita zerrendak hamar lagunera jaitsita, ikasketak egiteko eskubidea ukatuta, Barandalla... Horri egunero aurre egin behar diote, eskubiderik gabe eta etsaiaren menpean, giltzapean aurkitzen direlarik.

Hau dena ikusita, ezin gara itsu gelditu, zenbait talde politiko bezala; sakabanaketa abiatzen lagundu zuten, eta orain ez dute pauso bat bera emateko asmorik EAJk eta EAk. Dirudienez, Ibarretxe Planarekin lanpetuta daude, non Lapurdi, Zuberoa eta Behe-Nafarroa bezala, errepresaliatuak ere kontuan hartzen ez dituen. Errepresaliatuak, ez al dira euskaldunak, herrikoak, lantokikoak, koadriletakoak...?

Honen haritik, eta indarrak batzeko asmoz, beste hainbat ekimen bezalaxe antolatu genituen asteburu osoko 24 orduko barauraldiak, *Euskal Presoen Aurkako Erasoei Stop. Euskal Presoak Euskal Herrira* lemapean. Helburua, herriko talde ezberdin denek parte hartzea da, honi irtenbidea emateko denak baikara beharrezkoak. Kontuak horrela, iaz eman genion hasiera barauraldiei. 14 txanda, asteburuero, eta ehun pertsonak parte hartu zuten: Askatasuna, Segi, Etxerat, Gazte Ekimena, Erniarraitz, Emakume taldea, koadrila bat, eliza eta Elkarri, euskalgintza, kazetaritza, Lagun Onak eko zenbait jokalari, Ikasle Abertzaleak, Habea eta AGZ?!

Aurten, udako etenaldia eta gero, asteburuetako 24 orduko barauraldiak, azaroaren 15ean berriro ere martxan jarri ditugu. Iazko asmoekin abiatu da ekimena, eta San Inazioak arte egiteko asmoa dago. Espetxetan eta oro har bizi dugun egoera gordinaz jabetuta, zu ere beharrezkoa eta ezinbestekoa zara arazoari irtenbidea emateko. Orainarte ezertxo ez bazenekien, orain azal ezazu zure konpromisoa. Animatu eta parte hartu. Bestetik, eskerrak eman orain arte ekimen hau honaino iristen ahalegindu diren herriko taldeei. Azkenik, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak barne eztabaida eman ondoren, bere agiria euskal gizarteari pu-bliko egin zion. Honen haritik, Askatasunak hausnarketa baten beharra ikusten du, eta orainarte euskal presoen dinamikan partaide izan diren taldeek parte hartu behar dute, guztiok izango baitugu zer esana eta zer jakina. Abenduaren 11n, 20:30ean, Aitonena izango da batzarra. Gonbidatuta zaudete.

Azpeitiko Askatasuna

egunen bat egin beharko genuke jai horren ordez. Izan ere, Konstituzioa Euskal herrian onartu gabe dago, eta egun hori ospatu egiten dugu, jai eginda. Beste egunen bat egin beharko genuke jai, horren ordez. Baina abenduan egiten dugun zubi hori oso ondo etortzen da betiere".

### Mikel Agirre
(langilea)

**"Konstituzio egunean lana egin beharko genuke.** Espainiako Konstituzioa da, eta ez Euskal Herrikoa; beraz, ez daukagu arrazoirik jai egiteko. Egun horren ordez beste egunen bat jai egitea ere ez zait ondo iruditzen, azken finean Konstituzio eguna beste egun batean ospatzea izango litzatekeelako. Ez da bidezkoa, egun horretan lana egiteagatik beste jai egun berri bat sortzea".

### Amaia Bereziartua
(ileapaintzailea)



**"Nik, behintzat jai egiteko asmoa dut.** Abenduaren 8an ere jai egingo dut. Euskaldunon konstituzioa edo beste egunen bat egongo balitz jai egiteko egun horren ordez, nik neuk egun hura egingo nuke jai. Izan ere, Espainiako Konstituzio egunean baino nahiago dut beste egunen batean jai egitea".

### Nekane Zubeldia
(langilea)



**"Jai egiteagatik egingo dut jai.** Horren ordez beste egunen bat egongo balitz, hobe. Langilea naizen aldetik, jai egitea nahiago dut, bestela ere nahiko lan egiten dudalako. Baina egun horren esanahia ez zait gehiegi gustatzen".

**UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA**

**1. GALDERA: Antzerkira joateko zaletasunik ba al duzu?**

- **Bai:** %32
- **Ez:** %46
- **Topaketetan bakarrik:** %3
- **Antzerkia ezaguna denean bakarrik:** %19

"Euskal presoen eskubideen alde asteburu guztietan 24 orduko baraualdiak antolatu ditugu"

"Euskal presoen egoera gordin honi irtenbidea emateko, denok gara beharrezkoak"

**Askatasuna**

"Ulertu genuenez, 2002ko abenduaren 2an herritarrez gain udalak ere sinatu zuen konpromisoa"

"Herrian euskara normalizatzeko lan ugari du oraindik udalak"

**Azpeitiko EHE**

**zer diyo?**

# ZENBAT URTE BEHAR DIRA HERRIAN EUSKARA NORMALIZATZEKO?

2001eko abenduaren 2a, euskararen aldeko sinadura emanez, konpromisoa adierazteko eguna zen. Ulertu genuenez, egun horretan ez zuten herritarrek soilik sinatu euren konpromisoa, udalak ere bai.

Baina euskalgintzan aritzen garen hainbat erakundek ez dugu argi ikusten udalarena euskararekiko konpromisoa ala alderdikeria izan zen. Izan ere, udalari ahaztu egin ote zitzaion Euskararen Biziberritzeko Plan Estrategikoak teoria hutsetik praktika errealera igarotzeko beharrezkoak zituen antolaketa, kudeaketa, bete beharreko epe eta abarren berri ematea herritarroi? Ahaztu?

Azpeitiko Plana Euskal Herriko gainerako herrietarako eredu izan omen daiteke, eta herri honek horretarako baldintzak betetzen ditu. Baditu herriaren onarpena, euskalgintza aktiboa, udala (eta bere baliabide guztiak), eta honez gainera beharrezko diren gizarte eragileak. Baina egin denaren diagnostikoa egingo bagenu, ondorioa: bi urtez txosten lodiak idazteaz gainera, ezer gutxi.

**ZEIN DA ORDUAN HUTSA?.** Agian udalak ia bi urtez euskalgintzari ateak itxi dizkiola?

Agian, udalaren konpromiso falta izan da benetan huts egin duena, gizarte eragile eta euskalgintzarena izan duelako. Izan ere, azken bi horiek bideratu dute Kontseiluaren euskararen aldeko Bai Euskarari Ziurtagiriaren kanpaina, eta honekin aurrera jarraitzeko prestutasuna erakutsi ere bai.

Udalak, berriz, Biziberritze Plana abiatzeko behar den diru laguntza arriskuan ikusiduenean erreakzionatu du. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak, plana bideratzen ez zela ikusita, udalari epe bat ezarri dio, eta honen aurrean udalak presaka plana martxan jartzea erabaki du. Hori bai, betiko moduan, behatzarekin aukeratuz hau bideratuko duen jendea. Eta gero ez dela nahi dena, kontrolpean izatea? Eta gero hori ez dela alderdikeria?

**LAN UGARI EGITEKO.** Lan ugari du oraindik udalak: hasteko herriari azaldu beharko dio egunen batean zer egin duen bi urte hauetan (zerbait egin badu); euskalgintza eta herritarroi ateak oso-osorik ere ireki beharko dizkio; euskalduntzearen aldeko benetako apustu bat bideratu; euskararekiko egiteko dagoen lanak aurrekontuetan irudikatu; euskalgintzako eragileei baldintzak ziurtatu bizirauteko, eta erasoen aurrean, geroari begira, erreakzionatu; epaitegi eta anbulategian euskararen erabilera bultzatu...

Inoiz ez da berandu, baina euskararen aldeko apustuan udalak bidean alferrik galdu dituen urteak inoiz ezin izango dira berreskuratu, eta Azpeitiko Euskal Herrian Euskaraz-ekoak gehien kezkatzen gaituena: nork ziurtatzen digu hemendik aurrera hartzen dituen konpromisoak ez direla alderdikeri hutsa besterik izango?

Azpeitiko EHE

hausnartzen

**GAIA: 'Euskararen normalizazioa Azpeitian'. Euskaraz bizi al gara herrian? Udalak bakarrik gidatu behar al du plangintza? Zer paper jokatu behar du euskalgintzak?...**

**Oharra:** hurrengo zenbakietan ere eztabaida hau sartu nahi dugu Uztarrian; idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

# OJACASTROKO EUSKALDUNA

Itsu-itsu onartzen da azpeitiarra berezko euskalduna dela sinestearena, jatortasun labelari esker arduratu beharrik ez duela bere euskaltasun gibelandian. Azpeitian bertan, ordea, kolore askotako azpeitiarrak dira: euskaldun zaharrak asko, erdaldun zaharrak, euskaldun eta erdaldun berriak beste zenbait. Guztiak ere azpeitiar. Euskaltasunak baditu milaka aurpegi.

Ojacastroko euskalduna ikusi genuen orain hurrengoan Euskal Telebistan, ostua zioten euskararenganako arreta eta begirune eske. Erdi Aro urrunetsian euskara nagusi zen, nonbait, bere herrian, eta agerian erakutsi nahi dute han ere euskara ez dela arrotz. Ni zer pentsatu ez nekiela geratu nintzen Errioxako erakundeek euskara bere ondaretzat hartzeko jartzen zizkien traben aurrean, Espainiako euskaldun talde horren heroikotasunari begira. Xoraturik, izuturik. Iragana geroan ikusteko zoria eman zaionaren ikaraz.

Neurekiko egin nuen ez zegoela identitatea eguneroko tortura mailara zertan ekarri, eta antzeko burutazioak. Esana du poetak, "hizkuntza gu bizitzeko behar dugu, eta ez gu bizi hizkuntza bizi dadin". Lehen ere misiolari saldoak emanak gara, onberatasun kriminalez hamaika herri zapaldutakoak, zorion perfektuaren funtzionario lanetan suhar.

Normalizazioa boladan darabilgun hitz fetitxea da. Normal nahi dugu izan, eta euskaldunok Euskal Herrian laurden triste bat osatzen ez.

Azpeitian ordea, ai Azpeitia! Ia Zuberoa haina bada jendez, eta euskaldunago hagitzez. Ispilu itsugarria daukagu etxean munduarentzat; zertan da eredu baina? Galdetu nahi nuke zer meritu egin dugun horren euskaldun aratz, horren gora, horren harro agertzeko?

> "Ispilu itsugarria daukagu etxean munduarentzat; zertan da eredu baina?"

Azpeiti honetan denok dugu euskararen osasunaren ardura, ez maila berekoa baina. Aurrena bermatu beharrekoa, nire ustez, euskaldunari bezalaxe erdaldunari Azpeitian euskaraz bizi ahal izatea da. Bestela eskubide bat urratzen ari gatzaizkio euskaldunari bai, baina baita erdaldunari ere.

Hona datorrenak nolatan egingo du ba bere, egoera jakinetan komunikatzeko besterik balio ez dion hizkuntza. Etorri berriak azkar antzemango du gurean euskarak balio sentimental handia duela: irri, negar euskaraz egiten dugu, txakurrei eta umeei ere bai. Gizarteko kontu larri askotan, ordea, (osasuna, dirua, administrazioa...) euskararik gabe lasai ederrean bizi daitekeela ikasia izango dizu berehalatik.

Euskaraz bizitzeko aukeren eremua beste gehienetan baino zabalagoa izango du hemen, baina, horrekin batera, hala izan dadin beste gehienetan baino guardia bajuagoa daukagula seguru samar nago. Hartzaile onak gara, hor gabiltza ring-eko soka artean balantzaka, muturra ubelduta, hortzak konfiteak bezala listukatuz, baina, hori bai, irribarrea galdu gabe. Natural. Normaltasunez. Euskara ahoan eta *Diario Vasco* besapean. Noski, libre gara geure buruari harrika nola eman erabakitzeko.

Bitartean gimnasia gogorra egitera ekarri nahi gaitu euskalgintzak eguneroko txindurri lan eskergarekin. Anormalizatu egin beharko dugu denok, garunak eta giharrak behartu, inoizko batean nahi duen hark euskaraz bizi ahal izatea lortzekotan.

Ojacastro ez da Azpeitia. Han, jakina, txolinkeria gaitza izango da XXI. mendean euskaraz bizitzeak merezi duen galdetzea. Hemen galdera hori serio egin, erantzun eta bere erroa hedatu nahian dabil euskalgintza herriko beste esparruetara, bakoitzari bere arduraren mailan. Zer kristina egin behar dugu azpeitiarrok euskararekin?

Duela bi urte aurkeztu zuen Udalak Euskaraz Biziberritzeko Plan Nagusia. Dirutza ederrak eta indarra frango gastatu zituen orduan, guztiek lehendik ere bazekitena ozenki esan zezaten, azpeitiarrek euskara maite dutela. Konpromisorik eskatu gabe. Opari eskuzabal bat. Debalde.

Ekitaldi handinahia egin zen 2001eko abenduaren 2an. Herritar eta gizarte eragile gehien-gehienen babesa jaso zuen. Ikusmira polita ematen du garaiko hemerotekak oraindik ere. Indar hori guztia nola baliatu da, ordea? Ia bi urte basamortuan egon da plana. Edo hozkailuan. Edo Jainkoaren galtzarpean.

Orain berriro biztu da, baina ez ditugu kanpaiak joko badaezpada ere. Parada-paradan jarri zaigu berriro euskararen normalkuntzari bultzada sendoa emateko aukera. XXI.mendeko azpeitiar guzti-guztiei traumarik gabeko euskaltasunaren hautua bermatzeko moduan gara. Horretarako euskararen alde gaudenok, nekez jardungo dugu zintzo euskararen alde, elkarren kontra ari bagara. Egia da, Ojacastron baino hobeto gaude hala ere.

Udalaren ardura dela uste dut, guztion bitarteko asko berak dituelako besteak beste, Plana egoki garatzeko markoa eskaintzea. Hori hala izan dadin, Uztarriak eta gizarte-eragileen ordezkaritzak (enpresak, elkarteak, sindikatuak...) planaren erabakiguneetan eta kudeatze lanetan parte zuzena hartu behar dute nahitaez. Bestela, plan bat beharrean klan bat eratuko dugu. Eta setakeriatik eta sektakeriatik nahikoa osatuta gaude lehen ere. Nago, aurrean dugun erronkak zuhurtzia, tinkotasuna eta malgu jokatzen jakitea eskatzen duela. Euskalgintzari eta udalari aurrena, eta beste guztiei gero.

Euskaren bandera etengabe astintzen ibili beharrik gabe bizi nahi dugu. Euskaraz, baina ez euskararentzat. Euskal Herriko herri batean..., Azpeitian esate batera. Normal-normal.

Ondoan balego, bihotza betean besarkatuko genuke Ojacastroko euskalduna.

Jose Luis Otamendi (idazlea)

DISDIRA

FERNANDO ALONSO
LIMITED EDITION




antonelli



VICEROY
Fashion Silver



DONNA KARAN NY - SANDOZ - FOSSIL - SEIKO - LOTUS - CITYZEN
CASIO - POLAR - VICEROY - VICEROY FASHION - ANTONELLI - REBECCA

plaza txiki 7 ◆ Tel.: 943 81 23 67 ◆ disdira@wanadoo.es

eTxe BeRRIa
Brikolajea & Etxea





BADUZU NON AUKERATU

Garmendipe Kalea, 1  20730 Azpeitia  Gipuzkoa
Tel. 943 15 71 15




gotain
LURRINDEGIA

Erdikalea 3. 20730 Azpeitia   Tel. 943 814 358

**datue**

● **562 HERRITAR.** 562 azpeitiarrek dute gaur egun Euskal Herriko Naziotasun Aitormena aterata. Beraz, 500etik gora dira dagoeneko agiriarekin.



EHNA atera duten azpeitiarretako batzuk agiria eskuan hartuta, udaletxeko eskaileretan.

# EHNA, BABES BILA

## Tramitazio egunean Euskal Herriko Naziotasun Aitormena bultzatu nahi da herrian

**Kepa Urbieta**

Bai Euskal Herriari ekimenak EHNA bideratzeko deia egingo du abenduaren 13an. Tramitazio Egun Nazionala ospatuko da Euskal Herriko hainbat herritan, eta Azpeitia horien artean izango da.

Azpeitiko Udalak 2002ko maiatzean tramitazioa onartu zuenetik, 562 herritarrek atera dute EHNA. Larunbatean tramitazio eguna dela aprobetxatuz, Azpeitiko Bai Euskal Herriari taldeak gainontzeko herritarrei gonbitea helarazi nahi die, udaletxera gerturatu eta tramitazioa egin dezaten. Bien bitartean, ekitaldi bat antolatu dute 12:00etarako.

Taldeak EHNAren erabilgarritasunean oinarritu nahi du, eta berau "egunerokoa izan dadin", herriko hainbat merkataritza gunerekin eta gune publikoekin harremanetan jarriko da, erabilera bermatzeko. Horrez gain, "EHNAren bidez, edozein herritarrek, bere euskal naziotasuna aitor dezake, nonnahi eta noiznahi, libreki, ez inork eta ez inori ezer inposatu gabe", Azpeitiko Bai Euskal Herriari taldeak dioenez.

Tramitazioa egiteko ordua 08:30etik 14:00ak arte izango da egun horretan. Hiru argazki, errolda agiria, 18 urtetik beherakoa izanez gero familia liburua eta 12 euro behar dira. Nahi izanez gero, astean zehar ere egin ahal da udaletxean. ●

CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK

HORMIGONES
LAZKANO
HORMIGOIAK

## udal erabakiyek

### Azpeitiko Udaleko kontratazio mahaia osatu zen

Azaroaren 6an egin zen ohiko udalbatzarrean Azpeitiko Udaleko kontratazio mahaia osatu zen. Honatx mahaia osatuko dutenak: mahaiko lehendakaria Julian Eizmendi alkatea (EAJ) izango da; EAJko ordezkaria Iñaki Etxezarreta izango da; EAkoa Manuel Unanue; PSE-EEkoa Manoli Uranga; eta Habeakoa Miren Odriozola. Idazkari lanak udaleko idazkariak egingo ditu.

### Bi alegazio egingo dizkio Udalak EAE mailako garraio planari

Euskal Erkidego Autonomo mailan egiten ari den garraio planari bi alegazio egitea erabaki zen azaroaren 6ko udalbatzarrean. Alegazioetako bat Eibar-Elgoibar eta Zarautz-Zumaia loturekin lotura bermatzea da. Eta bigarren alegazioa, berriz, Ezkio Itsasora egin asmo den Abiadura Handiko Trenarekin, ahal den heinean, lotura bermatzea da. Habeakoek, gai honen inguruan, Abiadura Handiko Trenaren aurka daudela azaldu zuten.

## Xabier Sukia

gurien...

bertsolaria

### "Oso sentsazio ona izan genuen Azpeitian eskainitako saioan"

**Kepa Urbieta** / Trikuharri taldeko partaidea da Xabier Sukia oriotarra. *Inaxitoren ametsak* umeentzako saioarekin izan ziren Azpeitian, Euskal Antzerki Topaketen baitan. Antzerki talde hau hiru lagunek osatzen dute. Hirurak bertsolariak izaki, antzerkia umeen eta bertsoaren bitartekari lanetarako erabiltzen dute. Noski, antzerkia ere gustuko dute, eta haurrek bezain ongi pasatzen dute saioetan. Sukia bihurri samarra eta ameslaria da, *Inaxito* bezala.

**• Zer-nolako ametsa izan zuen *Inaxito*-k Azpeitian?**
Bere ametsa haurren ametsekin konpartitzea, ametsez amets munduan zehar ibiltzea, kultura eta hezkuntza ezberdinekin amestea eta esnatutakoan haurrak gozatzen ari zirela ikustea amestu zuen. Eta, noski, noizbait berriro amets egiteko aukera dagoela.

**• Nolako jarrera erakutsi zuten haurrek?**
Oso sentsazioa ona izan zen. Publiko goxoa eta eraman erraza iruditu zitzaigun. Umeen patata, palomita eta gozoki hotsa algaren artean nahasten zen eta horrek ez du preziorik. Testuinguruak ere garrantzia izan zuen. Soreasu orain arte pasatu dugun lekurik onenetarikoa izango zen, noski.

**• Zergatik bertso-antzerkia?**
Hiru partaideok bertsolaritzarekin zuzenki harremanetan gaudelako. Bertsoa da lotzen gaituena, eta plazara atera gaituena eta horixe transmititu nahi izan diegu haurrei. Bestalde, gaur egungo bertsolaritzan haurren premiak asetuko dituen zerbaiten beharra zegoen, sei eta hamar urte bitarteko haur bat ez da bertso saio batean eroso sentitzen. Komunikazioa da helburua, zuk esan nahi duzuna haurrak entzun nahi duenera egokitzea. •





Joseba Egibar.


Begoña Errazti.

## EAJren eta EAren zuzendaritza hautaketak herrian

**• EAJ: JOSEBA EGIBAR.** Euzko Alderdi Jeltzalean (EAJ) EBBko, zuzendaritzako lehendakaria hautatzeko prozesuan buru-belarri dabiltza azkeneko asteetan; jadanik lehendabiziko itzulia egin dute, eta afiliatuek eman duten beren iritzia. Azpeitian Joseba Egibar, gaur egun EBBko bozeramaileak irabazi zuen, Uztarriak iturri jeltzaleetatik jakin duenez. Iturri horiek ez diote aldizkari honi Azpeitiko boto kopuruen berri eman, "baina bai esan dezakegula Egibarrek, Gipuzkoan irabazi duen herrietan, alde handiz irabazi duela". Gipuzku Buru Batzarrak (GBB) ez du lehen itzuliko bozketen berri eman. Abenduan izango da bigarren itzulia, herrika bozkatuko da, eta EAJko afiliatuek bi hautagai izango dituzte: Egibar bera eta Josu Jon Imaz, Eusko Jaurlaritzako bozeramailea eta kontseilaria.

**• EA: BEGOÑA ERRAZTI.** Eusko Alkartasunak egin du bere kongresua, eta Begoña Errazti hautatu dute berriro lehendakari, %60 babesarekin. Azpeitiko EAko hamar lagun izan ziren kongresuan, eta Uztarriak jakin duenez, hauetako zazpi Erraztiren aldekoak ziren eta hiru Iñaki Galdos, Gipuzkoako EAko presidentearen aldekoak. •

## Martin Donea kalea izendatu da

Martin Donea errukietxearen ondoko pasabidea (Harzubia hiribidetik Foruen pasealekura doana), ahobatez kale izendatu eta Martin Donea izena ematea erabaki zen azaroaren 6 egindako udalbatzarrean.


Martin Donea kalea. / N.U.

## Udaltzaingorako postu berriak aterako ditu lehiaketara udalak

Udaltzaingorako postu berriak lehiaketara ateratzea erabaki zen azaroaren 6ko udalbatzarrean. Postu berriak ateratzearen arrazoiak bi dira: bata, udaltzain baten jubilazioa; eta bestea, zenbait udaltzainek Zarautzen udaltzain postua atera eta Azpeitikoa utzi dutela. Udaltzaingorako postuak betetzeko lehiaketan baldintza berri bat ere eskatuko zaie lehiakideei: BTP grua berezia erabiltzen jakin behar da.

pertsonajie



## Julian Bereziartua

Azpeitiko Zezenzale Elkarteak, zezen-plazak mendeurrena bete duen urte honetan, Julian Bereziartua medikua eta zirujaua omendu du. Azaroaren 23an egin zioten Bereziartuari omenaldia, bazkari eta guzti. Julian Bereziartua medikuak aurten 35 urte bete ditu zezen-plazan mediku lanak egiten, eta zezenzaleen elkarteko kidea ere bada. Bereziartua mediku eta zirujau bezala ezaguna da, oraindik ere lanean jarraitzen baitu. Gainera, bere lanarekin lotutako gomendioak eta informazioa ematen hainbat komunikabidetan parte hartzen du —*Uztarria* Herri Aldizkari honetan bertan, hasieratik, eta Euskadi Irratian ere aspalditik ari da zenbait programatan parte hartzen—. ●

## zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



**ERANTZUTEKO EPEA:** Abenduak 15 (astelehena)

**HELBIDEA:** Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerra; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

**AKATSA ADIERAZI** (idatziz edo boligrafoz):

**IZEN-ABIZENAK:**

**TELEFONO ZENBAKIA:**

**IRABAZLEARENTZAT SARIA:** Bi lagunentzako zirkuituoa Zelai Tasasoterapian (Zumaia).

**AURREKO ARGAZKIYE...**



**...ETA SOLUZIYUE**



**IRABAZLIE: Jone Azkue**



Jone Azkue izan da 45. garailea. Jostaldi Kirolak-eko erosketa txartel bat irabazi du, baita Uztarriaren elastikoa ere. Argazkian, Jone Azkue —eskuinean— eta Jostaldi Kirolak-eko jabea ageri dira.

"Txirrindularitza kirol profesionala da. Faktore humanoak apenas du lekurik"

**Joseba Albizu**
(txirrindularia)

"Gaurko Espainiako Estatuko zenbait buruzagiren artean *neocanovismoa* indartu da"

**Paco Garmendia**
(Teologia politikoan doktorea)


Pako Garmendia.

"Realera bueltatzeko itxaropenik ez dut galtzen, baina ez dut itsutu nahi"

**Mikel Labaka**
(Murtzia Hiriko futbolaria)

# Herriko bi obra nagusietan altzairuzko besoak abiadan lanean

**Nerea Uranga** / Luze jotzen ari diren bi obra daude herrian, baina abantaila hartu dute obrek azkenaldian. Bat udal sustapeneko etxebizitzena da, Enparan kalean, oraindik gainera luze joko duela dirudi, zenbait etxebizitzaren zozketatzeko baitago.

Azpeitiko saihesbidean egiten ari diren Sanjuandegiko rotondak ere zailtasunak eta ezustekoak izan ditu zubiaren oinarri berria egiteko orduan, baina lanak abantaila bizia hartu dute azken hilabetean oinarriaren zutabeak egiten hasi baitira. ●


Enpran kalean udal sustapeneko etxe batzuk joango dira. / Ion Aranburu


Azpeitiko saihesbidean rotondako zubi berrirako oinarria egiten. / I. A.


Saihesbidean langileak lanean.


Enparan kaleko lanak. /I.A.

ERAKUSKETA:
Eliz kalea, 12 - behea
Tfnoa. eta faxa: 943 81 12 12
BILTEGIA:
Landeta Hiribidea, 19
Tfnoa. 943 15 16 66
20730 AZPEITIA
E-mail: iturralde@euskalnet.net

Bainuak eta bainu osagarriak

ESKAINTZEN DUGUNA

Iturgintza
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta berauen mantenu lanak
Gasa (EG-IV kategoria)
Erregai likidoak

ITURRALDE Iturgintza, S.L.

AIZPURU AUTOAK
PEUGEOT
Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

Aliur
OKINDEGIA KAFETEGIA
Loiolako Inazio Hiribidea 6
943 81 38 01

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

"Azkoitia eta Azpeitia inguruan oso ezaguna, baina nahiko baloratu ez genuena zen Sakabi"

**Iñigo Aranbarri**
(Idazlea)

## motxien

### Santo Tomasak: postuen zozketak 10ean

Abenduaren 1ean amaitu zen SantoTomasetan postuak jartzeko izen emateko epea. Udal Festa Batzordeak izena eman zutenei jakin arazi nahi die jarriko diren postuen zozketa abenduaren 10ean izango dela, udaletxeko aretoan, 20:00etan.

### Gabonetan mixio azoka irekita egongo da

Urtero bezala Azpeitiko Mixio Taldeak mixio azoka jarriko du. Denda hau San Inazioetan Caritasen tonbola jartzen den lokalean jarriko dute. Amerika eta Afrikako produktuak egongo dira salgai: jakiak, arropak, apaingarriak... Abenduaren 15etik urtarrilaren 5a arte egongo da irekita, 18:00etatik 20:00etara.

## azaroko irudiye




**OTZAKA ERRETA.** *Azpeitiko Baserriak* liburuan esaten da 1374. urtean aipatu zela herriko historian aurrenekoz Otzaka Baserria. Baserri hori herritik kilometro eskasera dago, Ezkerretegitik gertu. Azaroaren21ean, goizaldean, su hartu zuen, eta teilatua eta aurrealdea ondatuta gelditu ziren.

PILDAIN
inmobiliaria
Elizkale, 22•Tf.943-812167•pildain@jet.es

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak, edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

EPELDE INMOBILIARIA
Goiko Kale, 1 - Behea
Tfonoa/Faxa: 943 15 03 31
20730 AZPEITIA
AEPI
A.E.P.I.:20/46

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura
KAITO TELEBISTA
Grabatutako bideoen kopiak egiten dira
81 53 35

kutxa
gizarte ekintza

# Imanol Elias

historialaria eta idazlea

Uztarriak abenduaren 6an aurkeztuko du Imanol Eliasek egindako herriko efemerideen liburua. Horretaz aritu da Uztarria Imanolekin

## "Datu historiko gehienak aurretik bilduak nituen"

Ainitze Oruesagasti

Uztarria aldizkarian kolaboratzaile da Imanol Elias, aldizkaria sortu zenetik. 2002ko irailean berari buruzko biografia liburua atera zuen Uztarriak, Mailo Oiarzabal kazetariak idatzitakoa. Orain, berriz, Imanol Eliasek egindako lan bat argitaratuko du Uztarriak: *Azpeitiko efemerideen liburua*. Abenduaren 6an aurkeztuko da, 12:30ean. Lan horren gorabeheren inguruan hitz egiten izan da Uztarria Imanolekin.

**• Zenbat denbora eman dizu egunez eguneko datuak bildu eta Azpeitiko efemerideen liburu hau osatzeak?**
Ziur ez nuke jakingo esaten, baina urte eta erdi seguru. Kontuan izan behar da nire abilezia ordenagailuan; horrek ere asko egiten du, baina ikasteko balio izan dit.

**• Nola jaso dituzu datu denak?**
Gauza bat da udaletxeko artxibategitik datuak ateratzea, eta beste bat lehenagotik jasota nituen datuak erabiltzea. Aurretik Azpeitiko historiari buruz ere idatzi izan dut, eta herriari buruzko lan eta informazio asko aurrez jasoa nuen; horrek lana erraztu egiten dit.

**• Artxiboko lan handia eskatu al dizu liburu honek?**
Azpeitiko datu historiko gehienak aurretik bilduak nituen. Gero, beste liburu batzuk kontsultatu, beste batzuek idatzi dituzten liburuetatik-eta datuak jaso, eta azken aldian egunkarietan azaldu dena ere begiratu dut.

**• 300 orrialdetik gora izango ditu liburuak. Datu asko dago bertan. Eta gainera, laburpena omen da.**
Bai, nik ditudan datu guztiak ez daude liburuan sartuta. Datu interesgarrienak eta adierazgarrienak daude liburu honetan. Nire lehen ideia, hasiera batean behintzat, liburua egiterakoan orrialde bakoitzean egun bat sartzea.

**• Datu bakarren batek harritu al zaitu bereziki?**
Zaila da esaten. Ez dakit zein aukeratuko nukeen. Nik gustura emango nituzkeen datuak, herriaren hasiera-hasierako datuak dira, baina horiek ez dira hemen inguruan inon aurkitzen. Datu horiek ez dira ezagutzen. Baina, bestela, nik uste dut datu garrantzitsuenak liburuan bilduta daudela.

**• Honezkero Azpeitiko historia ondo ezagutuko duzu bada?**
Hasieran liburu hau edo datu bilketa hau egiten hasi nintzenean, niretzako kontsultarako liburu bat egiteko asmoa nuen.

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foru Ibilbidea, 3 Tel.:629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)


Zumitza, ihia, ratana, forja eta medulazko altzariak lantzen ditugu
MATXIN XESTOAK
eskulangintza
Pablo VI, 8 - 943 810116 (denda)
Matxinbenta - 943 880174 (tailerra)

domusa



NEREA URANGA

Kontsultarako liburua izango dela uste dut. Nik uste dut orain liburu hau kaleratuta, nik dakidana beste edozeinek ere jakin dezakeela. Eta horrek ere badu bere meritua.

● **Lan eta lan zabiltza. Lan berri batzuk ere badabilzkizu esku artean. Aurreratzeko modurik bai zertan ari zaren?**

Gipuzkoako datuak biltzen ari naiz orain. Datu interesgarriak daude, eta gauza polita egin daiteke hor ere. Lehenagotik lan dezente eginda nuen, eta orain iloba Asier ari da datu gehiago biltzen, eta neronek ere laguntzen diot oraindik. Beste lan bat ere egiten ari naiz: Azpeitiko 400 pertsonaia inguru bilduko dituen lan bat da. Hau ere gustuko lana da, eta interesgarria izan daitekeela uste dut. Honekin, herriko zein kanpotik herrira etorritako eta herriaren alde lan egin duten pertsonaiak ezagutzera eman nahi dut. Ixilean lanean jardun izandako zenbait pertsonaia ere jaso ditut. Kontuan izan behar da pertsonaia horiek ez direla gazteak, gazteak badu-eta oraindik egin dezakeenik. ●

> “Herriari buruzko lan eta informazio asko aurrez jasoa nuen, horrek lana erraztu egin dit”

Euskal Herria,34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943 15 16 40
Larrialdiak: 943 15 16 40
Ekain
ALBAITARI KLINIKA

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA
Tel.: 943 81 47 12

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatuan aukera handia
URBISTONDO MARGOAK
"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

PEMEC

Biele



# KEXU ZARATEKIN

## Herriko tabernek, trafikoak eta industriak sortzen duen zarata dela-eta, udala gai hau aztertzen ari da, neurriak hartzeko asmotan

Ion Aranburu

Zaraten inguruko kexak daude herrian. Loiola Irratiko *Herriz herri* saioan Julian Eizmendi alkateak hala aipatu zuen: Azpeitiko alkate denetik gehien harritu duena, zarata dela-eta Udalean herritarrengandik jaso den kexa kopurua dela. Udala, jasotako kexak kontuan hartuta, neurriak hartzea aztertzen ari da orain. Eta laster horien berri ematekotan da.

Trafikoa, industria eta tabernak dira gure herrian zarata gehien sortzen dutenak. Herrian ibiltzen diren zenbait motok izugarrizko zarata ateratzen dute, askotan ihestutua aldatua dutelako, edo ixilgailua kenduta dutelako. Abiadurak ere badu zerikusia, zenbat eta azkarrago joan orduan eta zarata handiagoa ateratzen baita.

Azpeitiko Udalak eskatuta, 2001ean herriko zenbait puntutan zegoen zarata neurtu zuen Labein Zentru teknologikoak, eta gero emaitzak aztertu zituen. Azterketa horretan agertzen denez, herriko tabernen zaratak kexa asko sortzen ditu —batez ere, Alde Zaharrean eta Olazko Amaren Plazan—. Jakina denez, zonalde horretan ibiltzen da jende gehien asteburuetan.

Industriaren zarata ere azpimarratzen da azterketan. Esaterako, Arcelor aipatzen da, etxebizitzetatik gertu baitago. Legez onartua dagoena baino zarata handiagoa dago herrian, batez ere gune batzuetan. ●


**UROLA-KOSTAKO KOMUNIKAZIO PROIEKTU BERRI BATERAKO LANPOSTU HAUEK BETE BEHAR DIRA:**

### KAZETARIAK

**Eskaintzen da.**
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.

**Eskatzen da:**
- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Kazetaritza ikasketak izatea, Kazetaritza ikasten egotea edo kazetal lanetan esperientzia izatea.
- Autoa izatea.

**Kontuan hartuko da:**
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.
- QuarkXPress programa ezagutzea.

### KOMERTZIALA

**Eskaintzen da.**
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Soldata finkoa, gehi komisioak

**Eskatzen da:**
- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

**Kontuan hartuko da:**
- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.

### KUDEATZAILEA

**Eskaintzen da.**
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Soldata finkoa, gehi komisioak

**Eskatzen da:**
- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Kudeaketa mailan ezagutza izatea.
- Autoa izatea.

**Kontuan hartuko da:**
- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea. .
- Eskualdea ondo ezagutzea.
- Ofimatika ezagutzak izatea.

Curriculum Vitaea zehatza bidali abenduaren 17rako **idazkaritza@bertako.net** -era / **227 posta kutxa** (Azpeitia)


Andoni Aranaga txirrindularia bere bizikletarekin/ NEREA URANGA

**iritzia**
Joseba Albizu

## TXIKITAKO LAGUNA

Infantiletan ezagutu nuen Aranaga, 10-12 urte genituen. Gaztetan karrera asko irabazten zituen, asko nabarmentzen zen. Orain eman du profesionaletarako pausoa, baina Aranagak orain dela bi urtetik merezi izan du pauso hori ematea. Euskal Herrian, hala ere, zail dago profesionaletarako pausoa ematea, eta behar baino urte gehiago behar izan ditu. Aurten bere ordezkariak asko lagundu du, eta Belgikan leku bat topatu dio.

Entrenamenduetako lagunak ere bagara, Jokin Ormaetxea azkoitiarrarekin batera. Entrenamenduak taldean arinagoak egiten dira, kontu-kontari joaten gara, eta aldapak elkar *pikatuz* igotzen ditugu. Uste dut Aranaga Belgikan eta profesionaletan ondo ibiliko dela, eta probetxua aterako diola salto honi.

# ARANAGA ERE BAI

## Andoni Aranagak Belgikako Chocolade Jacques txirrindulari taldearekin profesionaletarako saltoa emango du aurten

**Nerea Uranga**

Sei urte txirrindularitzan afizionatuen mailan egin ondoren, profesionaletarako saltoa ematea lortu du Andoni Aranak. 24 urte ditu gaur egun eta 11 urterekin hasi zen txirrindularitzan, Lagun Onak Txirrindulari Taldean.

Profesionaletarako saltoa ez du Euskal Herrian emango; Belgikako Chocolade Jacques taldea izango du talde berria. "Hemen aurten txirrindulari asko pasa da afizionatuetatik profesionaletara, asko talde filialetatik pasatu dira. Baina hemengo taldeetan hutsunerik ez da gelditu, eta kanpora jo behar izan dut. Orain bi urte hasi nintzen Belgikako eta Italiako taldeetan begira. Gogorra da kanpora joan beharra, baina beste batzuen kasua ikusi ondoren, ilusioarekin nago; txirrindulari batzuek kanpora jo dute eta han nabarmendu dira. Txirrindularitzan, gainera, normala da kanpora ateratzea".

Urtebeterako kontratua sinatu du Belgikako taldearekin. "Urtebeterako sinatu dut talde berri honekin, eta urte ona egiten badut bertan jarraitzeko edo alde egiteko aukera izango dut. Alde batetik, arriskutsua da urtebeterako bakarrik sinatzea, gero ezer gabe gelditzea ere gertatu baitaiteke. Baina ni gustura nago urtebeteko kontratua egin dudalako; pixka bat arriskatu ere egin dut", dio Aranagak.

**ETXETIK GERTU.** Kanpoko talde batekin kontratua egin arren, etxetik gertuko karreretan ere ibiliko da Aranaga. "Hasieran uste nuena baino gehiago ibiliko naiz

> "Hemengo txirrindulari talde profesionaletan hutsunerik ez da gelditu, eta kanpora jo behar izan dut"

etxetik gertu. Izan ere, taldeak Euskal Herriko Itzulia, Donostiako klasika eta abar korritzeko asmoa du", kontatzen du.

Urtarrilaren 15ean joango da Aranaga Belgikara, Chocolade Jacqes taldearen aurkezpena orduan izango baita. Talde sortu berria da belgikarra. "Lehengo Marlux txirrindulari taldearen egitura antzekoa du, zuzendaria eta managerra Marlux taldekoak ditu". Taldekideak izango dituen txirrindulariak, berriz, internetez eta telebistaz besterik ez ditu ezagutzen.

Taldearekin aurkezpena Belgikan egin eta handik zuzenean Italiako Toscanara joango da, han taldeak konzentrazioa baitu. Ondoren, otsailean, Malasiako itzulia korritzera joango da. "Han uda izaten da, eta entrenamendu moduan korritzen dute talde askok", dio Aranagak.

Orain, inglesa ikasten hasteko asmoa ere badu Aranagak. "Lehendik inglesa pixka bat badakit, baina orain klaseetan hasteko asmoa dut". ●



# BESTE PRESO BAT

## Hasieran Soto del Realeko kartzelan sartu zuten Maider Egiguren; orain Alcala-Mecon dago

Oihana Elduaien

Aurreko hilaren 19an gertatu zen. Maider Egiguren azpeitiarra Arrasaten bere autora sartzera zihoala, kalez jantzitako zortzi bat polizia harengana joan ziren; Maiderrek berak gero anaiari esan zionez, "oso modu bortitzean". 20:30ak inguru omen ziren, eta "astin-astin egin eta nonbaiten botako zutela pentsatu zuen", haren anaiak kontatu digunez. Aldameneko kalean manifestazioa egiten ari ziren, eta Maider garraisika haiei abisatu nahian hasi omen zen. Ez zuen halakorik lortu, eta "isil-isilean, inor konturatu gabe" eraman zuten.

Arrasatetik Donostiara, "komisarira edo". Eta 00:30ak aldera, berriz, Azpeitira, Maiderren etxera, ohikoa den bezala etxea miatzera.

Familia eta lagunentzat orduantxe hasi zen "ezintasuna eta kezka". "Errebalean —Maider han bizi da— polizia zebilela bagenekien, baina Maiderren berririk ez genuen".

Hurrengo eguneko 11:00ak aldera arte ez zuen inork gertatutakoa baieztatu, eta familiakoek Euskadi Irratiaren bidez jakin zuten bezperan Maider eta Mikel Garaiondo atxilotu zituztela, Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epailearen aginduz —Garaiondo Eibarkoa da—. Familiakoek beldurra sentitu zuten: "Maider torturatuko zuten beldur ginen".

Espainiako Lege Antiterroristapean inkomunikatuta egon ziren, epailearen aurretik pasatu arte. Ostiralean, 21ean, pasatuko zirela esan zuten polizia iturriek. Beraz, familia Madrilera joan zen. Baina Maider ez zuten ostiralean pasatu. Familiakoak berriz ere etxera.

**ETXERA DEIA.** Larunbatean, inkomunikatuta zegoela, Maiderrek etxera deitu zuen. "Amarekin hitz egin zuen, gazteleraz, hala behartuta. Ondo zegoela esan zion". Deiak familiaren beldurra areagotu egin zuen, deiak egon diren kasuetan txantajeren bat-edo tartean egon izan dela esan baitzien abokatuak. "Maider epailearen aurretik pasatzeko desiatzen geunden, kartzelara edo kalera, baina komisariko tortura arriskutik kanpo".

Astelehenean pasatu zen Garzonen aurretik, eta ez zuen deklaratu. Kartzelara bidali zuen. Familiarekin egon zen, eta "oso ondo" ikusi zuten. "Orduantxe lasaitu ginen, oso gaizki tratatu zutela esan zigun arren". Soto del Real kartzelan giltzaperatu zuten. Ia astebetera Alcala-Mecoko emakumeen kartzelara eraman zuten azpeitiar zazpigarren preso hori.

### herriko preso, deportatu eta iheslarien egoera



● **'KAFE'.** Haika kasuagatik espetxeratu zuten, 2001ean. Oraindik ez dute epaitu; sei hilabete barru bai.



● **GOTZON.** Atxilotzerakoan larri zauritu zen. Senitartekoez gain hamar lagun besterik ezin dira joan bisitara.



● **'PATERRA'.** Puerto Santa Marian dago, Cadizen. Zigor luzea du betetzeko, eta epaiketa batzuk egiteko.



● **'TXAPI'.** Fresnesen dago, Parisen. Ez diote epaiketarik egin. Oraingoz, ez dute bere estradizioa eskatu.



● **'JABI'.** Urtebete baino gutxiagoan Frantziako hiru kartzela ezagutu ditu. Familiakoenez gain, bi bisita ditu.



● **JOXIN.** Orain 22 urtetik iheslari eta gero deportatua da. 2000tik preso dago; orain Santoñan.



● **'ETXARTE'.** Deportatu egin zuten, eta orain Kuban bizi da, deportatuta. Urte asko daramatza hantxe.



● **'ARTOLA'.** Venezuelan bizi da. 1984an deportatu zuten. 1979an etxetik alde egin behar izan zuen.



● **'PAKEA'.** 1978an Venezuelara joan zen errefuxiatuta. 25 urte daramatza han bizitzen.



● **'XEGU'.** Bi urte pasatu dira Espainiako Polizia bere bila hasi zenetik. Ordutik ez dago bere pistarik. ●




**HAUR GAZTE eta HELDUENTZAKO TRATAERA PERTSONALAK**

ASKACINTZA

IZADIA

FAMILIENTZAKO AHOLKULARITZA

IKASTETXEENTZAKO TREBAKUNTZA

HERRI MAILAKO PROIEKTUAK

- **HARREMAN ETA JARRERA ARAZOAK**
  antsietatea, depresioa, agresibitatea,..
- **ARAZO PSIKOSOMATIKO ETA FUNTZIONALAK**
  insomnioa, anuresia, ekoprasia...
- **IKASTEKO ZAILTASUNAK**
  ikas-teknikak, irakurketa-idazketa...
- **HIZKUNTZAREN GARAPENERAKO ARAZOAK**
  disfasiak, dislexiak, disfemiak, atzerapenak...

**urtarriletik irekita**

Jandonianiz 5, behea - Tel.943 02 64 35 / Faxa: 943 02 57 93 - 20720 AZKOITIA



# URRESTILLAREKIN AMAITZEKO

Pasa den hileko artikuluari jarraipena eman nahi diot. Urrestillaren gaia borobildu nahi nuke. Arazo bat dagoenean, medikuek gaitzekin bezala jokatu behar baita, hiru pauso hauek jarraituz: diagnostikoa, iragarpena edo pronostikoa, eta tratamendua arazoa konpontzeko. Medikuak beti esango dizu zer daukazun; gaitz horrek hartuko duen bidea, eta nola konpondu edo arindu litekeen.

Pasa den artikuluan Urrestillak duen gaitza deskribatu nuen. Gaitz horrek izen bat dauka zientzia demografikoen esparruan: *Lotarako herri* bihurtzen ari da, hau da, *ciudad dormitorio* delakoa. Gero eta jende gehiago bizi den leku bat, gazte jendea datorren leku bat gero eta zerbitzu publiko gutxiagorekin geratzen ari bada, horrek esan nahi du bertako biztanleek bizitza herritik kanpo egiten dutela gero eta gehiago, goizero herritik kanpo joan beharra daukatela euren oinarrizko beharrak betetzeko eta asetzeko, eta egunean bi aldiz itzultzen direla bertara: bazkaltzera (etortzen badira) eta lotara. Hiri handien kanpoaldean asko ugaritu dira lotarako auzo tristeak, egunez beste bizitzarik ez dutenak, ez nortasunik eta ez festa giro eta kultur girorik ez dutenak.

Urrestilla herri zahar bat da, baina bide horretan sartua dago. Etorkizunari begira nik hiru aukera ikusten dizkiot: 1, lotarako herria bihurtzea; 2, etxeak egitearen poderioz Azpeitiarekin bat egitea; eta 3, bertako biztanleak euren oinarrizko bizitza bertan egiten hastea eta bertako giroa indartzea. 30 edo 40 urteren bueltan asko alda liteke gure herria.

Esan beharrik ez dago nik Urrestillarentzat nahi nukeen etorkizuna hirugarrena dela, eta pentsatzen dut bertako biztanleek ere hala nahiko dutela. Galdu ditugun zerbitzuak berreskuratu behar ditugu. Nik ezagutu nuen mediku kontsulta herrian, eskolan bertan aritu nintzen hamar urte arte, frontoia egiten ikusi nuen, arraindegia ezagutu nuen, bi harakin, okindegia bertan ogia eginez, liburu azoka, argazki erakusketak... gaur ez da ia ezer geratzen.

Zer gertatzen da? Dena lotuta dagoela. Herrian medikua bagenu gaisoak bertara etorriko lirateke euren senideek lagunduta. Farmazia bagenu, botikak bertan erosiko lituzkete, eta bien bitartean kafe bat edo beste hartu ere bai tabernetan. Kutxazain automatikoa bagenu, jendeak dirua bertan aterako luke, eta bertan gehiago gastatu. Bazkaltzera datozenak galdezka aritzen dira askotan, ea herrian kajerorik ba al dagoen.

Herri baten helburua, funtzioa, biztanleak bizitza bertan egitea da, bertan geratzea, bertan aurkitzea behar duten gehiena. Gero nahi badute doazela kanpora arropa erostera, afaltzera edo juergara.

Arazoa bakarra dugu: indar propiorik ez edukitzea. Gure lurretan jarri dituzten enpresa guztien zerga-diruak bilduko bagenitu udaletxe aberatsa genuke Urrestillan. Udaletxe horrek hitz egingo luke banketxeren batekin kajeroa jartzeko, hartuko luke kezka eta presionatuko luke behar den tokian herrira medikua ekartzeko egunero, eta dentista astean behin, eta ginekologoa, eta pediatra. Udalak herriko eskolari ere eutsiko lioke.

Bestela, nolako herria utzi behar diegu gure ondorengoei? XIX. mendean urrestiltarrak saiatu ziren herrira udaletxea ekartzen. Haiek ere gu bezalako pertsonak izango ziren, euren arazoekin, batzuek pobreak, besteak egoskorrak eta besteak zitalak, baina izan zuten talentoa Urrestillarentzat etorkizun hobearen alde kezkatzeko eta borroka egiteko. Ahal zutena lortu zuten. Gutaz esango al dute antzeko zerbait hemendik ehun urtera?

Nahiago nuke esango balute: ba, Pako Aristiren artikulua oker zegoen, Urrestilla ez dago gaur egun hain gaizki.

**HILEKO GALDERA.** Zenbat azpeitiarrek zuten irakurria Fernando Morilloren liburu bat?



## Uztarria liburuak

# Abenduaren 6an aurkeztuko du Uztarriak Azpeitiko efemerideen liburua




● Aurkezpeneko informazio gehiago, 29. orrialdean
● Uztarriako bazkideek txarteltxo bat jasoko dute etxean, liburua erdi prezioan (6 eurotan) erosteko.

**Uztarriaren datuak**

**Argitaratzailea:** Uztarria Kultur Koordinadora
**Egoitza:** Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerra (Azpeitia). Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
**Posta elektronikoa:** uztarria@topagunea.com
Web orria: www.uztarria.com
**Posta kutxa:** 227, Azpeitia
**Inprimategia:** Gertu
**Tirada:** 2.000 ale
**Lege gordailua:** SS-860/2000

**aldizkari honen laguntzaileak**

AZPEITIKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

## beste liburuak

### Lau biografia orain arte




● **JOXE TAKOLO.** *Joxe Takolo* biografia liburua 2001eko maiatzean argitaratu zuen Uztarriak eta Enekoitz Esnaola kazetariak idatzi zuen.




● **ANGEL OTAEGI.** *Angel Otaegi* biografia liburua 2001eko irailean argitaratu zuen Uztarriak eta Iban Arregi kazetariak idatzi zuen.




● **IMANOL ELIAS.** *Imanol Elias* biografia liburua 2002ko irailean argitaratu zuen Uztarriak eta Mailo Oiarzabal kazetariak idatzi zuen.




● **PATXI ALTUNA.** *Patxi Altuna* biografia liburua izan da Uztarriak orain arte argitaratu duen azken liburua, 2003ko otsailean. Josune Etxeberria euskal filologo eta irakasleak idatzi zuen.

**690 bazkide gara jada**

## EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAn

**Urtean 21 euro** (aldizkaria, bi liburu, 'Literatuzta') / Bestela egin harpidedun (aldizkaria soilik; kontuarena ez beste guztia bete)

**IZEN-ABIZENAK:** ____________________

**HELBIDEA:** ____________________

**HERRIA:** ____________________ **KODE POSTALA:** ____________________

**TELEFONOA(K):** ____________________ **POSTA ELEKTRONIKOA:** ____________________

**KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA** (20 digitoak): ____________________

Julian Elorza Hiribidea, 4, 1.a ezkerra • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Uztarria Kultur Koordinadorak eta Baite Euskara Elkarteak bat egin dute, Azpeitiak euskalgintzako eta kulturgintzako erakunde indartsua edukitzeko. Helburua: herri proiektuak gauzatzea

# ERAKUNDE ERAGINKORRA HERRIRAKO

Testuak: Enekoitz Esnaola - Nerea Uranga

Erakunde "eraginkorragoa" bihurtu nahian, Uztarria Kultur Koordinadorak eta Baite Euskara Elkarteak bat egingo dute 2004tik, bien bazkideen batzarrek azaroaren 29an erabakita.

Bat egitearena ez da izan egun batetik sortu eta mamitu den ideia. Izan ere, Uztarriako eta Baiteko talde eragileek, aurten bien bileratan aipatu izan diren ideiak bildu eta irail hasieraz geroztik elkarrekin barne prozesua zabaldu zuten, bat egiteaz eta hainbat proiektuz hitz egiteko. Bien artean oinarrizko txostena egin zutenean, azaroaren hasieratik Uztarriako eta Baiteko talde, elkarte eta ikastetxe guztietara joan ziren, txostena pasatu eta bakoitzarekin banan-banan bilduz —dozenatik gora bilera egin dituzte eta ehun lagun ingururekin bildu dira—, ekarpenak jaso, eta azaroaren 18an Uztarriako eta Baiteko zuzendaritza batzordeen batzarra egin zen, batera. Baiezkoa eman ondoren, bazkideen batzarretara pasatu ziren asmoak, zuzendaritza taldearen osaketaren proposamena ere bai, eta ontzat jo zen dena.


Uztarriaren bazkideen batzarra, azaroaren 29an egin zen. / Nerea Uranga

Erakundeak Uztarria Kultur Koordinadora izenako du, orain arte Uztarriarenak bezala. "Hiru arrazoigatik: 1. Erreferentzialtasunagatik, Uztarria Baite baino leku gehiagotara iristen delako. 2. Erakundeak hiru ardatz izango dituelako —komunikazioa, euskara eta kultura—, eta Uztarriak 1998tik badituelako hirurak; Baitek bat —euskara—. 3. Antzinatasunagatik; Uztarria 1998ko martxotik dago, Baite 2001eko otsailetik". 'Kultur' mantentzearen arrazoia, berriz, "azken batean Azpeitian hiru ardatzetan kultur filosofi bat zabaldu nahi delako da, herri mugimendu izaerakoa, herri proiektuen sortzaile eta protagonista izanik, herriko beste erakundeen lana eta izaera errekonozituz beti ere".

Baite sortu zenetik, Uztarriak eta biek elkarrekin egin dute lan: Uztarriaren ordezkari bat beti egon da Baiteko talde eragilean, lokala bera dute, Baiteren aldizkaria Uztarrian egiten da eta Uztarria herri aldizkariaren barruan banatzen da... "Horretaz gain, euskara aldetik helburuak beraiek izanik, eta herrian nahasmenik edo disfuntziorik ez sortzeko, bat egitea da onena eta logikoena", diote bi zuzendaritzek. Hala, Baiteko talde eragilea, Uztarriaren euskara ardatzean sartuko da, eta orain arte bezala egingo du lan; orain, Uztarriaren izenarekin.

Bat egite honekin, beste fase bati ekin dio Uztarriak. "Baina ez da erabat berria, 1998ko martxoan abian jarri zen izaeraren, estiloaren, konpromisoaren eta

**nolako erakundea**

- Komunikazioa, euskara eta kultura ardatzak dituena (Uztarriak sortze beretik bezala).
- Ardatz bakoitzak talde eragilea edukiko du; hirurak beste talde batek koordinatuko ditu.
- Gainetik: zuzendaritza batzordea, eta bazkideen batzarra.
- Bakarra baina askotarikoa.
- Bazkide askokoa.
- Erreferentziala.
- Herritik sortua.
- Sare zabalagoa edukiko du.
- Positiboa.

**• 800 BAZKIDE.** Bat egitearen ondoren, Uztarriak, 2004. urtea 800 bazkiderekin hasteko aurreikuspena du. Bada zerbait.

**• BAZKIDE MOTAK.** Norbanakoak: 780 (aurreikuspena); kultura, euskara eta hezkuntzako erakundeak: 15 inguru; Enpresa laguntzaileak: 5-8 (oraingoz); Ohorezkoak: 4.

**• URTEKO KUOTA.** 2004an 24 eurokoa izango da Uztarriako bazkide kuota, azkeneko batzarrean onartu zenez. 2003an, Uztarrian ez ezik Baiten ere bazkide izan direnek, 29 euro ordaindu dituzte (Uztarriakoa 21 eta Baitekoa 8), eta 2004an horiek 24 euroko kuota izango dute, nahiz eta Uztarriaren urteko aurrekontua 2003koa baino handiagoa izan, Baiteren lan taldea eta proiektuak hartzean.

**• BAITEKOEI GUTUNA.** Une hauetan Uztarriak 690 bazkide ditu. Baitek 285, eta hauetatik Uztarrian bazkide ez diren 170 lagun daude. 170 horiei Uztarrian bazkide egiteko gonbitea iritsiko zaie abenduan, gutun baten bidez.

**• UZTARRIAKO HARPIDEEI.** Uztarria herri aldizkaria sortu zenetik bi figura daude: bazkideak (kuota ordaintzen dutenak) eta harpideak (dirurik jartzen ez dutenak). Herritarrek Uztarrian bazkide izan gabe aldizkaria jasotzeko aukera izan dute, eta uneotan 1.100 inguru dira Uztarriari kuota ordaintzen ez diotenak. Egunotan gutun bat iritsiko zaie, bazkide egiteko eskatuz. Denen diru ekarpena behar da.

**• NOLA EGIN BAZKDIDE?** Uztarrian bazkide egiteko modurik erosoena: deitu 943 15 03 58 telefono zenbakira.

lanaren jarraipena baita, baina hemendik aurrera herri proiektuak jarri nahi ditugu martxan, proiektu estrategikoak, eta oso garrantzitsua da erakundea indartzea, babes handiagoa izateko, leku gehiagotara iristeko, gauza gehiago lortzeko".

# Laxaro Azkune

**Uztarria Kultur Koordinadorako lehendakari berria**

## "Uztarriak beste dimentsio bat hartuko du ditugun proiektuekin"



NEREA URANGA

Laxaro Azkune da Uztarria Kultur Koordinadorako lehendakari berria, Iban Arregiri lekukoa hartuz. Betidanik euskalgintzan ibili izan dena da Laxaro; 1975ean Loiolan ikastolan irakasle hasi zen, eta hantxe egon zen 1983a arte, "denetik egiten"; ikastolatik Herri Irratira joan zen, "lehenengo aldiz kazetari lanak egitera", eta gaur egun ere hantxe dabil, euskaraz irratsaioak egiten; Euskal Herriko Bertsozale Elkartean ere badago, txapelketetan gai-jartzaileen ordezkari eta arduradun lanetan. Konpromisoko gizona.

**• Orain Uztarrian, Laxaro...**

Bai. Baina nik neuk ere Uztarria sortu aurreko prozesua bizi nuen, bileratan eta. Gero Erniarraitzeko lehendakari bezala ere bai.

**• Nola ikusten duzu Uztarria?**

Beti iruditu izan zait ariketa edo ekintza ona. Kultura, euskara eta komunikazioa batu nahi izan ditu hasieratik, eta proiektu sendoa da eta oso interesgarria. Aldizkariak atera ditu, liburuak, weba sortu, eta jendeak euskaraz irakurtzeko eta jendea arlo horretan euskaraz bizitzeko dinamika sortu du. Gainera, Uztarria hasieratik herrira modu positiboan heldu izan da, eta hori Euskal Herrian ez da ba askotan gertatzen, bikoizketak, funtsik gabeko errezeloak... egoten direlako.

> "Uztarria beti iruditu izan zait ariketa edo ekintza ona. Gainera, hasieratik modu positiboan heldu izan da herrira"

**• Proiektu berriekin dator orain.**

Hala da, eta horrek oraindik eta ilusio handiagoa sortzen didate. Uztarriak orain arte baliabide gutxirekin gauza asko egin ditu, eta orain pauso kualitatiboa eman nahi dugu, *Hitza*-rekin, euskararen normalizazioan, kultur-gunearekin, Uztarriaren eta Baiteren bat egitearekin... Beste dimentsio bat hartuko du Uztarriak orain, eta hori ona da Azpeitiarentzat eta azpeitiarrentzat. Erronkak ditugu, baina erronkei heldu egin behar diegu. Gainera, oraindik eta jende gehiago erakartzeko balio lezakete.

# (HERRI) PROIEKTUAK MAHAIAN

Uztarria Kultur Koordinadorak orain arte bide bat egin du, elkartea sendotuta dauka, eta, garai garrantzitsuan gaudenez, hemendik aurrera arlo estrategikoetan herri proiektuak aurrera atera nahi ditu. Nagusiak: 'Hitza' egunkaria, euskararen normalizazioa eta kultur-gunea

## 'Urola-Kosta Hitza' euskarazko egunkariaren sorrera

Uztarria iaztik ari da aztertzen Urola-Kosta eskualdean euskarazko egunkaria sortzearen proiektua, bailarako euskara elkarteekin eta orain *Berria*-ren enpresa Euskarazko Komunikazio Taldearekin (EKT) batera —lehen Egunkariarekin batera—. Iaz eta aurten urte hasieran, Uztarriak horretaz informatu eta iritzia eskatu zuen Kultur Koordinadorako batzarrean, eta proiektua bera ontzat jo zen. Iazko bazkideen batzarrean ere informazioa eman zen, eta aurten ontzat jo da. Hainbat bileraren ondoren, proiektua adostuta dago Txaparro (Zarautz), Baleike (Zumaia), Artzape (Getaria), Danbolinzulo (Zestoa), Uztarria euskara elkarteen eta EKTren artean; Maxixatzen (Azkoitia) eta Karkara (Orio) elkarteak ez dira oraingoz enpresan sartu, baina herri horietan badaude jada *Hitza*-ren aldeko taldeak eta hasi dira lanean.

- **NOIZ?**

**2004.** Urte hasiera aldera.

- **ZERGATIK?**

**Gabezia.** Urola-Kosta eskualdean (ere) prentsan herri informazioa ez da egunero euskaraz jorratzen. Erdarazkoak dira erreferentzia.

**Hutsunea estali.** Hutsune hori estali beharra dute euskarazko hedabideek.

- **HELBURUAK.**

**Euskararen normalizazioa.** Euskararen hedapenerako eta normalizaziorako.

**Estrategikoa.** Euskarazko herri komunikabideen arloan aurrerapauso estrategikoak emateko (euskaldunok ere prentsan herriko berri euskaraz eta egunero jasotzeko).

**Eskualdeko mailakoa.** Eskualde mailako komunikabideak osatzeko.

**Erreferentzialtasuna.** Euskarazko egunkariak erreferentzialtasuna lortzeko.

- **PRODUKTUAREN EZAUGARRIAK.**

**Formatoa.** Egunkariarena.

**Kazetaritza.** Estandarra; kalitatea, aniztasuna eta zerbitzua helburu dituena.

**Izena.** *Urola-Kostako Hitza*.

**Hizkuntza.** Eskualdeko euskara batua. Bertako lexikoarekin, joskerekin…

**Maiztasuna.** Egunero, astelehenetan izan ezik (hilabeteko oporrak; zehazteke).

**Zenbaki kopurua.** Urtean 285.

**Orrialdeak.** Egunero zortzi (hasteko).

**Informazioa.** Urola-Kosta eskualdekoa. 11 herrietakoa: Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Zestoa, Aizarnazabal, Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio eta Aia.

**Irakurleak.** Lehen bi-hiru asteetan denei banatuko zaie *Hitza*, eta ondoren, nahi duenak jasoko du egunkaria, izena ematen duenak. Azpeitiko aurreikuspena: egunero 2.200 aleko tirada herrian (horietatik 1.800 inguru Uztarriaren Azpeitiko harpideak dira, eta aurreneko egunetik *Hitza*-ko harpide bihurtuko dira, ezezkorik jaso ezean).

- **ENPRESAKO PARTAIDEAK.**

**Urola-Kostako euskara elkarteek.** %45.

**Bertako Hedabideak-ek (EKTkoa).** %35.

**Urola-Kostako gizarte eragileek.** %20.

- **BESTE 'HITZA'-K.**

**Tolosaldekoa.** 2001eko abenduan sortu zen hango herri egunkaria. Egunero 7.500 ale banatzen dira, etxeraino, bertako erreferente da, ia udal gehienek laguntzen dute, komertzialki oso ondo doa, ordaindutako harpidetzak (borondatekoa) harrera bikaina du.

**Oarsoaldekoa.** 2003ko ekainean sortu da. Jadanik 5.100 aleko tirada. Harrera ona udaletan (hiruk diru laguntza ematen diote eta beste batek beste kontzeptu batean). Oraindik goiz da balorazio komertziala egiteko. Ordaindutako harpidetza (borondatekoa) kanpaina ez dute hasi.



# Azpeitiko efemerideen liburua, herriarentzat altxorra

Uztarriak oso interesgarria iruditu zaio Azpeitiko historia xehe-xehe ematea. Herriaren altxorra baita Imanol Eliasek egin duen liburu hau.

● **AURKEZPENA.** Abenduaren 6an (larunbatean) aurkeztuko da *Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar* liburua, 12:30ean.

● **EGILEA.** Imanol Elias Odriozola. 1936an jaio zen, Azpeitian, eta herriko historiako hainbat liburu idatzi ditu. Uztarriak hari buruzko biografia liburua aurkeztu zuen irailean, Mailo Oiarzabalek idatzia.

● **EZAUGARRIAK.**
**Orrialdeak.** 360.
**Neurria.** 21 x 29,7 zm.
**Hizkuntza.** Euskara.
**Eskema.** Hilabeteka-egunekа-urteka dago.
**Argazkiak.** 245.
**Salneurria.** 12 euro. Uztarriako bazkideek erdi prezioan erosi ahal izango dute.
**Non saltzen.** Uztarriaren egoitzan eta Eklipsen.

**Lea-Artibai eta Mutrikukoa**. Azaroaren 11n sortu zen.
**'Hitza' bakoitza.** *Hitza* bakoitzaren enpresa, independentea da besteekiko.

● **ETA UZTARRIA HERRI ALDIZKARIA?** *Hitza* sortutakoan, Azpeitiak egunero gutxienez orrialde bat edukiko du bertan, eta, beraz, herrian prentsan herri informazioa euskaraz jorratzeko orduan, Uztarria herri aldizkaria ez da erreferente izango, *Hitza* baizik. Beraz, Uztarriak errealitate berrira egokitu egin beharko du. Aztertzen ari da, eta proposamen bat balego, jakinaraziko litzateke, dagokion organuetan erabakia hartzeko. Bitartean, Uztarriak segituko du.

● **ETA EUSKALGINTZAKO ALDIZKARIA?** *Hitza* sortu ondoren ere, Baiteren —euskalgintzaren— hileroko aldizkariak segitu egingo du, beste izen batekin. Arrazoiak: merkea da, erraz egiten da eta oso funtzio garrantzitsua betetzen du.

## Besterik

**EUSKARA.** Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia martxan jarri nahi du, eta 2004. urteko Azpeitiko plana egina du. Uztarriak euskararen normalizazioaren planean parte hartu nahi du: diseinuan, jarraipenean eta eguneroko lanean, euskalgintzari lan hori dagokiolako. Dena dela, Uztarriak eta Baitek egin duten proposamena, Baiteren aldizkariko abenduko zenbakian dago, osorik. Bide batez, *Bai Euskarari Ziiurtagiria*-rekin segituko du euskalgintzak.

● **MENDI GIDA.** Lagun Onak Mendi Bazkunarekin eta Juan Joxe Agirre argazkilariarekin, mendi gida ari da prestatzen Uztarria. Herriko 21 ibilbide bilduko dira; zailtasun eta luzera denetakoak. Modu ikusgarri, praktiko eta grafikoan egongo da ibilbide bakoitza. Astе batzuk barru aurkeztuko du.

● **KULTUR-GUNEA.** Herrian kultur-gunea sortzeko asmoa dauka Uztarriak, horrelako kultur azpiegitura zabalik behar delako. Aztertzen ari da, eta sakontzen ere bai.

● **'LITERATUZTA'.** Hurrengo urteko otsailean edo martxoan aterako du Uztarriak *Literatuzta*, literatura gehigarrian 2. zenbakia. Uztailean atera zuen 1.a. Gazte talde bat ari da hor lanean. Idatzia bidali nahi duenak, bidal dezala lasai literatuzta@uztarria.com helbidera.

● **AZPEITIKO ESTILO LIBURUA.** Azpeitiko hizkeraren estilo liburua egitea aztertzen hasi zen Baite, eta lan horrekin segituko du Uztarriak, herriko euskal filologo batzuekin batera. Herriko lexikoa, esamoldeak, joskera... bilduko ditu lan horrek. Ikerketa lan handia da, eta bere denbora behar du.

# www.uztarria.com berritua, osatua

Uztarria Kultur Koordinadoraren webgunea —www.uztarria.com— 2002ko urtarrilean jarri zen martxan. Orduzkeroztik atal berriak eta ukitu txiki batzuk izan ditu. Orain berritu eta itxuraldatu egin da.

● **EGUNEKO EFEMERIDEAK.** Egunean eguneko efemerideak aztertzeko modua prestatu da, Imanol Eliasen efemerideen liburua interneterako egokituta. Esperientzia berria da euskarazko eta tokian tokiko webgintzan.

● **ELKARRIZKETAK ON-LINE.** Elkarrizketak on-line egiteko saioa abiatu da. Alegia, herritar bat gonbidatuko dugu noizean behin uztarria.com-era, eta bertara bidalitako galderak erantzungo ditu ordu jakin batean. Esperientzia berria da euskal webgintzan.

● **BILAKETARAKO SISTEMA BERRIA.** Bilaketak egiteko sistema aldatu egin dugu. Orain, edozein hitz bilatu eta lehen baino egokiago egiten dira bilaketak. Hitz bat baino gehiago bilatzeko aukera ere badago, gainera. Une hauetan, ia 4.000 orrialdetan egiten da bilaketa.

● **DISEINU BERRITUA.** Diseinua aldatu egin da, guztiz. Orain, askoz diseinu sinpleagoa du, jendeak errazago nabigatu ahal izan dezan webgunean barrena. Hori izan da helburua, behintzat: ahalik eta jende gehienak erraz ulertzeko moduko diseinua ipintzea.

● **ATALEN BERRANTOLAKETA.** Atalen berrantolaketa ere eman da, diseinuaren sinpletasunak eta erabilgarritasunak bultzatuta.



# BAT EGITEKO ETA LANERAKO TALDEEN ETA ERAGILEEN INPLIKAZIOA

Uztarria Kultur Koordinadora eta Baite Euskara Elkartea osatzen duten taldeez eta eragileez gainera, herriko hainbat taldek ere bat egitea hobetsi du. Honek babesa emango dio talde bateratuari

## "Bi taldeak osagarriak dira"

● **UROLA IKASTOLA.** "Baitek eta Uztarriak bat egitea, Azpeitian euskararen normalizazioan, alor guztietan, bultzatzeko, laguntzeko eta animatzeko komenigarria da. Bi taldeen orain arteko funtzionamendua ikusita, osagarriak dira eta baliabideak hobeto aprobetxatuko dituzte. Azpeitian euskara eta kultur mailan talde erreferentzial bat behar da".

## "Kultura indartu behar dugu"

● **URRESTILLAKO MUSIKA TALDEAK.** "Gure iritziz, Uztarriatik eta Baitetik orain arte lan asko egin da euskara aldetik. Kultur arloan ere lana egin da, baina oraindik ere asko dago egiteko eta hori bultzatu beharra dago; hurrengo pausua horretan eman beharko da. Herriko taldeek eta eragileek elkartuz eta inplikatuz ahal eta jende gehien horretan lanean jarriz eta hori indartzen saiatuz. Komunikazio aldetik hurrengo urratsa Urola-Kostako *Hitza* sortzea da. Informazioa jasotzeko zenbat eta aukera gehiago izan, askoz hobeto".

## NOR IZATEKO PROIEKTUAK

**UZTARRIA KULTUR KOORDINADORA**

Uztarria Kultur Koordinadora sortu zenean —1998ko martxoan—, hiru ardatz finkatu zituen lan egiteko: komunikazioa, euskara eta kultura. Izan ere, arlo horietan arazo handiak zeuden, hutsune asko, eta herri euskaldun honetan ez zen ona egoera hura:

- Komunikazioa: herri aldizkaririk ez zegoen, herri telebista bere kontura zebilen, web orrialderik ez zegoen...
- Euskara: udal euskara teknikaririk ez zegoen, udal euskara patronatorik edo batzorderik ere ez, euskara elkarterik ere ez, eta herrian ez zegoen euskararen normalizaziorako plan estrategikorik.
- Kultura: kultur etxerik ez, kultur azpiegitura eskasak, kultur dinamika pattala, kultur taldeen artean koordinaziorik ez, kultur plangintza falta...

Bost urte pasatu dira eta aurrera egin da (ikusi 32. eta 33. orrialdeak). Baina oraindik izugarri falta zaigu:

- Komunikazioa: Azpeitiak ez ditu herri komunikabide eraginkorrak edota kalitatekoak: ez du herri egunkaririk...
- Euskara: Azpeitian ez gara euskaraz bizi, euskararen normalizaziorako dagoen plan estrategikoan parte-hartzea mugatua da (oraingoz) eta plana bera ez da abiatu oraindik.
- Kultura: herri azpiegitura onik ez dago (kultur-gunea, kultur etxea...) eta kultur dinamika ez da ona.

Garai garrantzitsuan eta erabakigarrian gaude Azpeitian, eta Euskal Herrian. Alor estrategikoetan nabarmen egin behar dugu aurrera, sortzaile eta protagonista izan nahi dugu herri erakundeok. Bost urte eta erdi pasatu dira Uztarria sortu zenetik eta ia hiru Baite Euskara Elkartea sortu zenetik, eta, gabeziak gabezi eta hutsuneak hutsune, orain arte bide bat egin dugu, baina bestelako egoera batera iritsi nahi dugu.

Nolako Azpeitia nahi dugu epe ertain-luzera?

## "Natural hartu dugu bat egitea"

● **ERNIARRAITZ BERTSOZALE ELKARTEA.** "Erniarraitz Bertsozale Elkartean jendeak nahiko natural hartu du Uztarriak eta Baitek bat egitearena. Erniarraitzek, bietako kide izanda, normala eta logikoa dela uste duelako. Biek bat eginda, batean bilduta indarra bilduko da. Proiektu berrien aldetik, nahiko anbiziotsuak dira. Ondo etorriko dira. Geure elkartean sakondu egin behar dugu zenbaiteraino koko konpromisoa-eta eskatuko diguten".

## "'Hitza' sortzea pauso handia da"

● **EHE.** "Uztarria eta Baitetik orain arte euskara arloan egin den lana oso positiboa da eta orain batzearekin proiektu handiagoak atera daitezke aurrera. *Urola-Kostako Hitza* sortzea pauso handia da euskararen normalkuntzarako. Eta EBPNn behar-beharrezkoa da euskalgintza eta herriko eragileekin batera aurrera ateratzea".

## "Kultur diagnosia egin behar da"

● **AZPEITIAN GAZTEOK ZER?!** "*Urola-Kostako Hitza* beharrezkoa ikusten dugu herri informazioa euskaraz jaso dezagun eta, nola ez, herri mugimenduari ere bultzada handia emango dio. Kulturari dagokionez, Azpeitiko kulturaren egoeraren diagnosi bat egin beharra dagoela ere beharrezko ikusten dugu, egoera ez baita ona".

## "Bat egitea ondo ikusten dugu"

● **ZAHARRA BERRI ELKARTEA.** "Uztarriak eta Baitek bat egitea oso ondo iruditzen zaigu; lehen ere nahiko uztartuta zeuden eta askotan harremana zuten, esaterako *Baite* aldizkaria Uztarriarekin banatuz. Uztarria kultur proiektua denez eta euskara arloa ere lantzen duenez, horrela biek batera bi arloak landuko dituzte".

## “Behar da talde sendo bat”

● **IKASBERRI AZPEITIKO IKASTOLA ETA HAU DA!** “Orain arte Uztarriak eta Baitek egin duten lanari esker, sinesgarritasun handia lortu dute. Beraz, bien elkarketatik sortuko den talde berriarentzat abiapuntu bikaina da. Behar da talde sendo bat. Garbi daude emaitzak eta proiektu zehatzak ere bai. *Hitza* egunkariarekin jende asko euskaraz irakurtzen ohituko da”.

## “Bat egitea egokia eta naturala”

● **IRAURGI IKASTETXEA.** “Azken bospasei urteetan euskal kulturak erreferentzia nabarmenik izan baldin badu, Uztarria elkartea izan da hori. Gainera, ia hiru urte badira Baite Euskara Elkartea lagun izan duela euskararen aldeko eginkizunetan. Guztiz naturala eta egokia irizten diogu Iraurgi Ikastetxetik Azpeitiko euskalgintzak bat egitera jotzeari”.

## “Beste pauso bat eman da”

● **KITARRISTA TALDEA.** “Guk hasiera-hasieratik ezagutzen dugu Uztarria, sortu aurreko prozesuan parte izan ginelako. Orain beste pauso bat eman da, eta hor ere eman dugu gure iritzia. Ondo irizten diogu bat egiteari, indarrak biltzea delako, eta proiektuak ere onak dira. Ea denon artean kultura aldetik zerbait indartsua egiten dugun”.

## “Indarrak biltzea garrantzitsua da”

● **ORKATZ KULTUR ELKARTEA.** “Uztarria eta Baiteren bat egitearen inguruan, indarrak biltzea garrantzitsua da gauzak egin ahal izateko. Maila horretan, bateratze horrek lagundu dezakela uste dugu. Bestetik, proiektu interesgarriak daude aurrera begira, eta kultur arloan zentratuz, herrian dauden hutsuneei —asko daude eta— erantzunak eta alternatibak bilatzeko taldeen protagonismoa berreskuratzea urrats garrantzitsua izango da”.

Hori da galdera. Eta erantzunaren bila jo behar dugu. Aurrera egiteko garaia da, aurrera proiektu estrategikoetan.

Azpeitian komunikazioa, euskara eta kultura ardatzetan, Uztarria erakunde eraginkorra izatea da helburua. Horretarako, proiektuak herrikoak izan beharko dira, eta gure elkartearen proiektu soil baino gehiago, herri proiektu bezala aurkeztuz Azpeitian; babes handiagoa izateko, leku gehiagotara iristeko, gauza gehiago lortzeko. Beti ere herriko beste erakundeekin elkarlana bilatuz, eta besteen lana eta izaera errekonozituz.

Hauek dira komunikazioa, euskara eta kultura ardatzetan Uztarriaren proiektu nagusiak:

- *Urola-Kostako Hitza* egunkaria sortzea (komunikazioa, euskara).
- Azpeitian euskararen normalizaziorako plan estrategikoaren diseinuan, jarraipenean eta eguneroko lanean parte-hartze zuzena lortzea (euskara).
- Kultur-gunea sortzea (kultura).

Hori guztia aurrera eramateko, oso garrantzitsua da herriaren aurrean erakunde indartsu bezala azaltzea. Eta horregatik egin dute Uztarriak eta Baitek bat, erakunde bakar sendoa sortuz.

Erakundeak herri mugimendu izaerakoa izan behar du, beti; bere izaeraren eta helburuen arabera jokatu behar du, beti. Baina proiektu gehiago abiatzeko eta gauzatzeko, geure erritmoa izateko, edozein erakunderekiko independenteagoak izateko, baliabide ekonomiko propio handiagoak izan behar ditugu. Bide horretan, Uztarriak baditu ideia batzuk, eta lantzen ere hasi da. Proiektu horietako bat da herrian kultur-gunea irekitzea. Kultur-gune hori ez litzateke gaur egungo edo biharko eguneko herriko beste kultur azpiegiturei lehia egiteko sortuko; batetik, Uztarria bera indartzeko litzateke, eta, bestetik, egungo azpiegituren osagarri eta herriarentzako abegarri. Baina zer litzateke kultur-gune bat horretarako kultur proiekturik gabe? Ezer ez. Beraz, Azpeitiko kultur egoeraren azterteka egiteko asmoa dugu, gero, herriko gaur egungo proiektuak eta ekimenak aintzat hartu eta diagnostikoa ere kontuan hartuta, kultur proiektua egiteko.

Gauza asko, beraz, Uztarriak esku artean dituenak. Baina merezi du erronkei heltzea. Komunikazioa, euskara eta kultura ardatzetan NOR izateko. Aukera ona dugu azpeitiarrok eta ezin dugu alferrikaldu. Aurrera!

## “Gure babes osoa dute”

● **LAKRIKUN ANTZERKI TALDEA.** “Bi taldeen bat egitea oso ondo iruditzen zaigu. Orain arte bi erakundeek egin duten lana oso ona izan da. Lakrikun talde bezala, Uztarriaren partetik babes handia sentitu izan dugu beti, guk egindako lanari arreta eta babes handia eman izan diolako; Uztarriaren bitartez beti izan dugu aukera gure lanak zabaltzeko. Etorkizunean ere badakigu orain arteko lana bezain ona edo hobeaa egingo dutela bi erakundeek, eta gure aldetik babes osoa dute”.

## “Indarra egiteko modu bat da”

● **ARGAZKI ELKARTEA.** “Uztarriak eta Baitek bat egitea ondo iruditzen zaigu, taldeak elkar batzeari ondo dago, indarra egiteko modu bat delako. Gainera, kultura aldetik ere indar handiagoa egiteko modu bat da. Datorren urteei begira Uztarriak egiteko asmoa duen proiektuen aldekoak gara, herriarentzat positiboak izango direlako”.

## “Euskalgintzaren elkarlanerako”

● **AEK.** “Hizkuntza komunitatea biziberritzea nahi baldin bada, ez da nahikoa euskaraz hitz egitearekin. Uztarriaren eta Baiteren bat egiteak, parada ezin hobea erakusten du euskalgintzan behar-beharrezkoa ikusten den elkarlanerako. Azpeitiko Udalak badaki EBPNri gogoz heltzeko moduan dagoela orain”.

## “Kulturan gehiago egin beharko da”

● **ZUBI ZARREKO ROCK TALDEAK.** “Bat egitea aurrerapauso bat da. Uztarria Kultur Koordinadora sortu zenetik gauza asko egin dira, eta orain kontu batzutan, kultur arloan esaterako, indar handiagoa jarri beharko da, baita taldeetatik lana eginez ere. Orain arte egindako lana ona izan da eta gauza asko ere lortu dira”.

## “Kultur egitasmo sendoa behar da”

● **ITSASI.** “Bi taldeek arlo berean lana egitea baino egokiagoa da talde indartsu batek egitea aurrera euskara eta kulturaren alde, batik bat euskal kulturaren alde. Kultur arloan egitasmo sendo bat burutzea egokia litzateke, urteetan jarraipena izango duena eta jarraipen horren bidez, jendeak parte hartzeko ohitura hartuko duena. *Urola-Kostako Hitza* bezalako proiektuek herritarrei euskaraz irakurtzen asko lagundu diezaiekete gure ustez”.

# EUSKALGINTZA ETA KULTURGINTZAREN SEI URTEKO IBILBIDEA

Lehen bilera orain sei urte egin zen. 1998an Uztarria Kultur Koordinadora sortu zen. 2001ean Baite Euskara Elkartea. Asko egin da ordutik (beste taldeek aurretik eta bitartean egin duten bezala)

• **LEHEN BILERA.** Euskalgintzak eta kulturgintzak Uztarria sortu aurreko lehen bilera 1997ko urriaren 18an egin zuen, Sanjuandegin parrokiak dituen lokaletan. 25 bat lagun elkartu ziren, eta harrezkero beste bilera batzuk egin ziren. Kultur Koordinadora sortu behar zela erabaki zen.

• **KOORDINADORAREN SORRERA.** Uztarria Kultur Koordinadora 1998ko martxoaren 3an sortu zen. Prentsaurrekoa eman zen. Honakoak izan ziren Uztarria sortu zuten talde eta norbanakoak: Azpeitiko Argazki Elkartea, Urrestillako Rock Taldeak, Zubi Zarreko Rock Taldeak, Azpeitian Gazteok Zer?!, Hegoaz Blai, Orkatz Kultur Elkartea, Azpeitiko Euskal Herrian Euskaraz, Azpeitiko AEK, Antxieta Antzerki Taldea, Azpeitiko Gazte Asanblada, Kitarrista Taldea, Bertso Eskola, Azkoitiko Mataderoko azpeitiarrak, Laxaro Azkune, Jose Luis Otamendi, Xebaxtian Lizaso eta Xabier Alday.

**Jaialdia.** Jendaurreko aurkezpena, berriz, 1998ko apirilaren 4an egin zen, Azoka plazan, herriko taldeen artean egindako jaialdi handian.

• **BAITEREN SORRERA.** Baite Azpeitiko Euskara Elkartea 2001eko otsailaren 10ean sortu zen; Azpeitiko euskalgintza osoak sortu ere. Kideak: Urola BHI, Karmelo Etxegarai Ikastola, Ikasberri Azpeitiko Ikastola, Betharram, Iraurgi Ikastetxea, Jesusen Alabak, Milagrosa, AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Udal Euskaltegiko langileak, Uztarria Kultur Koordinadora eta Erniarraitz Bertsozale Elkartea.

• **HERRI ALDIZKARIA.** Uztarria herri aldizkaria 1999ko azaroaren 5ean sortu zen, eta 46 zenbaki argitaratu dira. Hilabetekaria da.

**Berritu.** 2002ko urtarrilean Uztarria herri aldizkaria diseinuz eta edukiz berritu zen.

**Inkesta.** Herri aldizkaria sortu aurretik,


Uztarria sortu aurreko bileretako bat.


Altuna eta Lizaso, Baiteko ohorezko bazkide.


*Literatuzta*-ren aurkezpena Enparan atzean.

herrian inkesta egin zen: nolako aldizkaria sortzeko... 400 erantzun jaso ziren.

**Kultur agenda.** Horretaz gain, 1998ko martxotik 1999ko martxoa bitartean, lau orrialdeko kultur agenda atera zuen Uztarriak, hilero.

**Atxikimenduak.** 1999ko apirilean "herri aldizkari zabal" baten aldeko prentsaurrekoa egin zen, eta dozenaka atxikimendu bildu: taldeak, ikastetxeak, norbanakoak...

• **ZENBAKI BEREZIA.** 2003ko maiatzaren 26an Uztarriaren zenbaki berezia argitaratu zen udal hauteskundeen emaitzez.

• **EUSKARA ALDIZKARIA.** Baite aldizkariaren 19 zenbaki argitaratu dira. Aurrena, 2001eko azaroan. 2002ko maiatzetik, hilero.

• **WEBGUNEA.** www.uztarria.com sortu zen 2002ko urtarrilaren 1ean.

**Berritu.** 2003ko azaroaren 29tik berrituta.

• **BIOGRAFIA LIBURUAK.** Lau azpeitiarren liburuxka biografikoak argitaratu ditu Uztarriak.

**Takolo.** *Joxe Takolo* biografia 2001eko maiatzean argitaratu zen eta Enekoitz Esnaola kazetariak idatzi zuen.

**Otaegi.** *Angel Otaegi* liburua 2001eko irailean argitaratu zen eta Iban Otaegi kazetariak idatzi zuen.

**Elias.** *Imanol Elias* 2002ko irailean argitaratu zen eta Mailo Oiarzabal kazetariak idatzi zuen.

**Altuna.** *Patxi Altuna* biografia liburua 2003ko otsailean argitaratu zen eta Josune Etxeberria euskal filologoa eta irakasleak idatzi zuen.

• **'LITERATUZTA'.** *Literatuzta* sortu zen 2003ko uztailaren 18an, eta 19 lagunek parte hartu zuten literatur gehigarrian.

• **HITZARMENA.** Uztarriaren eta Azpeitiko Udalaren artean, bi urterako (2000-2001) hitzarmena sinatu zen herri aldizkariari buruz.

**Proposamenak.** Uztarriak hitzarmen proposamena egin zion Azpeitiko Udalari, 2002an eta 2003an, komunikazio planari buruz (aldizkaria, webgunea eta biografiak).

• **KULTUR ETXEA.** Uztarriaren proposamen landua kultur etxea sortzeari eta nolakotasunari buruz (1999ko martxoan). Lokalen inguruko txostena ere egin zuen Uztarria Kultur Koordinadorak.

• **KONTZERTUAK.** Uztarriak eta Baitek hiru kontzertu antolatu dituzte.

**Benito Lertxundi.** Kiroldegian.

**Ruper Ordorika.** Zelaitxon.

**Kepa Junkera.** Izarraitz pilotalekuan.

• **KULTURALDIAK.** Uztarriak bi Kulturaldi antolatu ditu (2002an eta 2003an): musika, antzerkia, poesia, artisautza...

• **HITZALDIAK.** Baiteren 13 hitzaldi: *Euskaldunak kirolean* gaia, *Euskararen plan estrategikoak, adibidez* gaia, Juan Carlos

Etxegoien *Xamar*, Kike Amonarriz eta Antton Olariaga, Koldo Zuazo, Iñigo Aranbarri, Pako Aristi, Paula Kasares, Martxelo Otamendi, *Egunkaria*-ko langile azpeitiarrak, Koldo Izagirre, Asisko Urmeneta, eta Xabier Isasi.

**'Herri aldizkariak'.** Uztarriak herri aldizkariei buruz ere hitzaldia antolatu zuen.

● **'EGUNKARIA'-REN ALDEKO BATZORDEA.** *Egunkaria*-ren aldeko Azpeitiko Batzordea sortu (Uztarria eta Baite partaide dira) eta ekimenak antolatu dira: elastikoak, errifak, autobusak manifestazioetara... *Berria*-ren alde herrian 59.000 euro biltzea zen helburua, eta lortu dira.

● **KONTSEILUA.** Kontseiluak Azpeitia aukeratu zuen euskararen normalizaziorako herriko plan estrategikoa abian jartzeko (2000ko azaroa).

● **EBPN.** Azpeitiko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian parte hartzeari buruzko bi proposamen egin dituzte Baite-Uztarriak: 2001eko azaroan eta 2003ko azaroan.

● **BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA.** *Bai Euskarari Ziurtagiria* herrian martxan du Baitek, 25 eragilerekin. Beste 11, 2000tik daude.

● **ABIZENAK EUSKARAZ.** Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpaina jarri zen martxan.

● **FUTBOLA EUSKARAZ.** Soziedadeetan eta tabernatan futbol partidak telebista kate digitaletan euskaraz jartzeko kanpaina egin zen.

● **ETORKINEI HIZTEGIA.** Etorkinei zuzenduriko oinarrizko hiztegia argitaratu da.

● **KORRIKA.** Uztarriaren eta Baiteren Korrikako lekukoak eta parte-hartzeak.

● **GAZTERIA.** Baitek gazteriako ekimenak egin ditu: txotxongilo emanaldia, hiru ikastetxeetan gazte hizkerari buruzko hitzaldiak Kike Amonarrizek, *Euskaraz Jolas* ikastaroa begirale, hezitzaile eta gurasoentzat.

● **HAUR HIZKERA.** Baiteren lana haur hizkerari buruz.

● **BAZKIDEAK.** Uztarriak 689 bazkide ditu eta Baitek 285. Urtero egin dira Uztarriaren eta Baiteren bazkideen batzarrak.

● **OHOREZKO BAZKIDEAK.** Baiteren ohorezko bazkide izendatzeak eta ekitaldiak egin dira: Patxi Altuna, Joxe Lizaso, Pilar Aizpitarte eta Enrique Zurutuza.



Baitek antolatuta Iñigo Aranbarriren hitzaldia.


*Euskaraz Jolas* ikastaroa antolatu zen.


Uztarriaren aurkezpen jaian, Kitarrista Taldea.



Korrika-n parte hartzen.



*Bai Euskarari Ziurtagiria* ekitaldia.

● **DIRU LAGUNTZAK.**

**Publikoak.** Uztarriak eta Baitek Azpeitiko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak jasotzen dituzte.

**Pribatuak.** Uztarriak eta Baitek Azpeitiko enpresen laguntzak ere badituzte. Iragarki asko ere bai, merkatu berria sortuz.

● **EGOITZA.** Uztarriak 2000ko martxoan lortu zuen lehen lokala (udalak utzita), 2003ko maiatzean bigarrena. Egoitza erreferentzia gune bihurtu da herrian.

● **TXOSNAK.** Herriko jaietan Uztarriak txosna jarri izan du. San Inazioetan 1998tik, eta Santo Tomasetan bi aldiz.

● **ZOZKETAK.** Baiteren eta Uztarriaren zozketak egin dira bazkideen artean. Eta Baitek errifak ere saldu ditu.

● **POURRAK.** Uztarriak Frantziako Tourreko Pourrak antolatu ditu, 2001etik.

● **ELASTIKOAK.** Uztarriak elastikoak atera ditu, bi aldiz.

● **MINTEGIETAN...** Uztarriak ikastetxeetan eta mintegietan hitzaldiak eman ditu koordinadoraz, euskaraz, herri aldizkariaz eta webguneaz.

● **LAGUNTZA EUSKAL HERRIAN.** Euskal Herriko euskara elkarte batzuei aholkuak eta laguntza eman izan dizkie Uztarriak, haiek aldizkaria eta web orrialdea sortzeko.

● **BESTE KOMUNIKABIDEETAN.** Eusko Ikaskuntzaren aldizkari digitalean Uztarriaren artikulua atera zen herri hedabideez, hark eskatuta.

● **ERESERKIA.** Baiterena egin zen.

● **PRENTSAURREKOAK.** Ekimen garrantzitsuenak publikoki azaldu izan dira.

● **HAZPARNEN.** Uztarriaren eta Baiteren presentzia Hazparneko Ikastola berriaren inaugurazio egunean.

● **EFEMERIDEAK.** 2003ko abenduaren 6an Azpeitiko efemerideen liburua aurkeztuko du Uztarriak, Imanol Eliasekin elkarlanean. 360 orrialde, 244 argazki.

● **MENDI GIDA.** Aste batzuk barru, Lagun Onak Mendi Bazkunarekin eta Juan Joxe Agirre argazkilariarekin elkarlanean mendi gira aterako da.

● **'HITZA'.** Urola-Kostan hasieran *Egunero* eta gero *Hitza* euskarazko egunkaria sortzeko pausoak eman dira 2002ko udaberritik. 2004 hasiera aldera *Urola-Kostako Hitza* sortuko da; Uztarria da sortzaileetakoa.

● **BAT EGITEA.** Uztarria eta Baite bat egiteko prozesua zabaldu zen aurtengo irailean, eta azaroaren 29an egin da bat egitea.

# 'BERRIA'-RAKO 59.000 EUROAK LORTUTA

'Egunkaria' itxi eta euskarazko egunkaririk gabe gelditu ginen. 'Berria'-rako 59.000 euro lortu behar ziren Azpeitian, eta erronka gainditu da denon artean




Jon Aranburu

Erronka handiak ditu orain Uztarriak, batzarrean erabaki zituenak, baina ez zuen erronka txikia *Berria*-ren aldeko Azpeitiko Batzordeak, euskarazko egunkariaren alde herrian 59.000 euro lortu behar zirela jakin zenean. "Akzioekin hasi ginenean, helburura sekula iritsiko ez ginela uste genuen, baina hor daude euro horiek".

Akzio kanpaina hasi zenetik ez dira gelditu ere egin batzordekoak. "Denda, taberna eta enpresa txiki guztietan ibili gara akzioak saltzen. Oso harrera ona jaso dugu. Gainera, akzioak erosi ez dituzten askok, dirua eman digute".

Akzioak saltzeaz gainera, beste ekintzak ere egin ditu batzordeak. Egunkaria Eguna antolatu zuten ekainaren 7an eta herriko festetan otarrak zozketatzen ibili dira. "Herriko festa guztietan urdaiazpikoa eta otarra zozketatu ditugu sosak ateratzeko asmotan". Gustura daude, "orain arteko 59.050 euroak herritarrei esker lortu direlako". Akzioek salgai jarraitzen dute. Erosi nahi duenarentzat telefono zenbakia: 943 15 03 58.

